

■ ■ ■ ■ Hausnarketa estrategikoaren prozesua Gipuzkoa 2020
2002 jardueren txostena

4 ESZENATEGI HAUSNARKETA EGITEKO




2 0 2 0



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Ekonomi eta Turismo Departamentua
Departamento de Economía y Turismo



AURKIBIDEA

SARRERA

GIPUZKOA 2020. 6
4 eszenategi hausnarketa egiteko

ESZENATEGI 1 21
Gipuzkoa kuzkurtua


ESZENATEGI 2 29
Gipuzkoa desgogara

ESZENATEGI 3 35
Gipuzkoa paradoxikoa

ESZENATEGI 4 43
Gipuzkoa berritzailea

Prozesuaren partearitzaileak 50





Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

Eszenategiak etorkizuneko irudi ezberdinak dira (gertakizunak). Irudi hauek eskuan izanda hobeto uler dezakegu gaur hartzen ditugun erabakiek eta egiten ditugun ekintzek nolako eragina izan ahal duten etorkizunean.

Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

SARRERA.

Gizateriaren konstante bat bere etorkizunetikoz kezka da. Garai guztietan egon izan dira zalantzak ekonomiaren, kulturaren, gizartearen, teknologiaren eta legearen arloetan. Gaur egun, globalizazioak, gizarte-aldaketek, balioen eraldaketak eta aurrerapen teknologikoaren errotak azkarrak gerta daitezkeen etorkizunaren aukera zabaldu egiten dute eta, era berean, handiagotu egiten dute berez dugun kezka.

Aldaketa horien ondorioek denongan dute eragina, pertsonengan, enpresetan, organizazioetan eta bai herrialdeetan ere. Izan baditugu bi alternatiba: batetik, gertatzen ari denaren aurrean ez ikusiarena egitea eta korronteari gu eramaten uztea; bestetik, aldiz, aurrea hartzea eta korronteak gure alde egiten saiatzea.

Prospektiba ez da etorkizuna asmatzea, ezta zerbait aurretik fabrikatua balitz bezala azaltzea ere. Aitzitik, etorkizuna egiten laguntzea du xede. Prospektibaren eginkizuna, lehendabizi, izan daitezkeen etorkizun ezberdinak identifikatzea da. Horixe izan da, hain zuzen ere, Gipuzkoa 2020 izeneko hausnarketa estrategikoa egiteko lan honetan egin duguna.

Etorkizuna etengabe aldatzen da. Galtzen ari denaren eta azaleratzen ari denaren aurrean adi egiteko jarrera zuhurtziaz beteak etorkizuneari ondorio garrantzitsuak izan ditzaketan "indar ideia" eta joerei buruzko hausnarketa, azterketa eta ebaluazio-prozesua dakar berekin.

Kontua aldaketari aurrea hartzea da, halako moldez, non, batetik, prest egongo garen eta, bestetik, gure alde joka dezan hartan eragin ahal izango dugun. Horrek aldaketa sakonak (azpiegitura berriak, bestelako jarrerak eta jokamoldeak eta abar) eskatzen ditu eta epe luzeko perspektiban kokatzen gaitu.

"Egunerokotasunak eta presaka ibili behar horrek sortzen duten mendekotasunetik askatzea behar-beharrezkoa da aldaketa aldekoa izan dadin kudeatzeko eta mendea hartzeko".¹

Hirugarren milurteko honen hasieran azaltzen ari diren erronkei aurrea hartzeari buruzko kontzeptu honekin, Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Departamentuak, 2020. urteari begira, Gipuzkoako etorkizunari buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko prozesua sustatzen du.

Horren xedea **Gipuzkoak** datozen hogeitun urteotan izango dituen **erronka estrategikorik behinenak zein izango diren zehaztea** da. Prozesua **batez ere prospektiboa den filosofia batean oinarritzen da**; eta gehiago da etorkizunaren aurreko jarrera bat ekintza-programa bat baino. Gainera, gipuzkoar gizarteari **parte hartzeko gune ireki** bat eskaini nahi dio, Gipuzkoan egiteko eta Gipuzkoarentzat izango den etengabeko hausnarketa bultzatzeko asmoz.

METODOLOGIA.

Gipuzkoako Eszenategiak 2020rako dokumentua egiteko prozesuak hiru azterketa-fase izan ditu.

Lehen fasearen (2000. urtea) helburua datozen hogeitun urteotan Gipuzkoak aurre egin beharko dien erronka estrategikoak (aukerak edota mehatxuak) definitzea izan da. Gipuzkoako gizartearen iritziak eta irizpideak jaso ahal izateko taldekako hainbat bilera eginda, 4 erronka identifikatu ziren:

¹ Hugues de Jouvenel. *Futuribles Internationales ordezkarri nagusia*.



Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

Erronkak (G2020)

1. Gizarte zibila*: Kontzientzia sozialaren eta hazkunderari, garapenari eta herritarren bizi-kalitateari buruzko iritziaren eragile sortzailea den aldetik, eginkizun horietan gizarte zibilak duen rola sustatzea, artikulatzea eta bideratzea.
2. Hezkuntza: Egungo hezkuntza-sistema eraldatzea eta berregitea, batez ere premia aldakorrek dituzten helduen kolektiboek egiten duten eskaerari erantzun ahal izateko zerbitzu-eskaintza doitzea eta handitzea.
3. Lurraldea: Azpiegitura egokiak izan ditzan kalitateko gune bat artikulatzea, Gipuzkoa barnean zein kanpoko inguruarekin konektatutako eskaintza izan dadin.
4. Jarduera ekonomikoak: Gipuzkoar enpresa prestatzea eszenategi global, teknologiko, berritzaile eta ingurumena babesten duen batean erantzun egokia emateko.

Bigarren faseak (2001. urtea) identifikatutako erronkei buruzko azterketa sakonagoa egitea eta dokumentazioan ere sakontzea izan du xede; horrela bada honako lan hauek egin dira:

- Adituek txostenak idaztea (12).
- Kanpoko hausnarketa-prozesuen erreferentziak topatzea (23).
- Eztabaida-tailerrak abian jartzea. Horietan 150en bat pertsonak parte hartu dute.

Bigarren fase horretako ondorioak zirela eta, erronka horien bilakaeraren inguruko hipotesiak eta sor ditzaketen eszenategiak aztertu beharra sortu zen. Azterketa hori egiteko orduan Gizarte Zibilaren erronka bitan banatzeari egoki iritzi genion. Batetik, Gizarte Zibila izenez biztanleria, balioak, jarrerak eta abar kontuan hartuko zituena, eta bestetik, Gobernamentua izenekoa, alderdi politikoari begiratuko ziona.

* Gizarte zibilaren erronka geroagoko azterketa batean bitan banatu dugu: *Gizarte Zibila eta Gobernamentua*.

Hirugarren fasea² 2002. urtean burutu dugu eta horretan eszenategiak asmatzeari ekin diogu. Labur esanda, hona hemen prozedura:

- Gipuzkoa 2020 (G2020) sistemarako erreferentzia metodologikoa “Europa 2010” izena duen Europar Batasunaren prospektibazelulak burututako jarduna da.
- Behin alde aurretiko lanetan erronka estrategikoak identifikatuta, mikroeszenategi edo eszenategi partzialak zehazteari ekin genion eta horretarako bost izan ziren kontuan hartutako arloak edo erronkak: Giza Kapitala, Lurraldea, Gobernamentua, Gizarte Zibila eta Ekoizpen-sistema.
- Hausnarketarako bost talde, arlo edo erronkako bana, aritu ziren mikroeszenategiak edo eszenategi partzialak burutzen. Horretarako erabili zuten metodoa gaitzat jotako aldagaiak hautatzea eta identifikatzea eta bilakaerarako hipotesiak aztertea izan zen.
- Eszenategi horietatik abiatuz, horiek burutzeaz arduratu ziren taldeetako koordinatzaileek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Departamentuko arduradunek eta proiektuaren Idazkaritza Teknikoak Gipuzkoako Eszenategiak 2020rako (G2020) idatzi zituzten.
- Mikroeszenategien eta horiek eratzen dituzten “indar-ideien” arteko erlazioak aztertu ondoren, lau eszenategi global eratu ziren 2020ko Gipuzkoarako (G2020). Honako hauek kontuan hartzea beharrezkoa da:
 - Miatzeko eszenategiak direla. Horrela bada, izan daitezkeen etorkizunen (futuribileak) irudiak dira eta ez da egiten baten edo besteren alde.

² Prozesuaren dokumentazioa www.g2020.net web orrian dago. Web horretan kontsulta daitezke hala lanak eta dokumentuak, nola beste hausnarketa-prozesu batzuetako dokumentazio gehigarria.

Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

- Taldeak adostasunez erabakigarritzat jotako hainbat kontzeptu bere egin dituela. Kontzeptu horiek, erronka guztiak orokorrean hartuta, zeharkakoak dira. Bi taldetan sailka ditzakegu:

a) Gipuzkoan eragina duten baina Gipuzkoatik haietan eragiteko aukera eskasa den indar-ideiak edo faktoreak. Hemen sartuko lirateke hainbat joera eta haustura; hala nola, globalizazioa, biztanleria zahartzea eta iraultza zientifiko-teknologikoa.

b) Eragiteko gaitasun endogenoa handia den indar-ideiak edo faktoreak.

- Herritarren, gizarte-eragileen eta eragile ekonomikoen jarrerak (pasiboa, errektiboa, proaktiboa...).
- Balioak (lidergoa, partaidetza, elkarlana...).
- Gizarte-proiektuak egotea edo ez egotea.
 - Bizitza pertsonala, soziala eta lan-arlokoa batera eraman ahal izatea.
 - Elkartasuna, gizarte-ongizatea.
 - Bizi-kalitatea.

a) Gipuzkoako eszenategietan eragina izango duten joerak eta hausturak

Hausnarketa estrategikoaren prozesu bat osatzen duen edozein prospektiba-ariketak diseinatzen ari diren futuribiletan modu garrantzitsuan eragina izan dezaketen joerak kontuan hartu behar ditu, baita, ahal den neurrian, antzeman daitezkeen sistema-hausturak ere.

Horrelaxe egin dugu, hain zuzen, Gipuzkoa 2020 proiektuaren markoan, kontuan hartu beharreko aldi gerta daitezkeen joeratzat edo hausturatzat jo ditzakegun indar-ideia edo faktore jakin batzuekin. Honen ondoren faktore horietako garrantzitsuetako batzuk aipatuko ditugu.

Globalizazioa.

Gipuzkoako enpresarik handienak ari dira dagoeneko nazioarte mailan lehian eta, denborak aurrera egin ahala, gero eta gehiago izango dira horrelako inguru batean lehian jardungo diren enpresa ertain eta txikiak. Horren eragina gero eta nabarmenagoa izango da datozen urteetan.

Mugak eta aduanako tarifek sortarazitako oztopoak kentzea, herrialdeen arteko ondasunen eta zerbitzuen truke masiboa, enpresak lehiatzeko abantailen bila doazela-eta sortzen den jarduera ekonomikoaren migrazioa eta lurraldeen espezializazioa dakartza berekin ekonomia internazionaltzek edo ekonomia globalizazioa.

Horrek guztiak elkarren mendekotasun ekonomikoa eta benetako "mundu mailako sistema ekonomikoa" dakartza. Horiek horrela, zati edo osagarrietako batean gertatzen den edozein aldaketak berehalako ondorioak ditu sistema guztian.

Prozesu horrek ondorioak izango ditu gipuzkoar enpresen tamainetan eta kudeaketa-moduetan. Lehiatzeko eta lankidetzan jarduteko goia lortu nahi da globalizatutako munduan, baina ezagueren eta balioen jabe edota sortzaile diren pertsonak bizi direneko herrialdeen garapenari ("glokalizazioa"³) laguntzen.

Informazio-gizartea eta teknologia berriak.

Datozen urteetan informazio-gizartearen eta teknologia berrien (IKTBak) garapena oso garrantzitsua izango dela aurreikusten da.

³ Jon Azua: *Industria-Gipuzkoa 2020. Una visión de estrategia industrial para la Gipuzkoa del 2020.* 2001eko iraila.



Ingurunerik hurbilenaren aldean –ekipo informatikoen indizea, sakelako telefonoena, ordenadoreena, Internet enpresetan erabiltzearena, Internetera konektatutako etxeena estatuko batez bestekotik gora daude gure herrialdean- Gipuzkoan informazio-gizarteak eta teknologia berriek lortutako maila onartzeko modukoa bada ere, oraindik ere urrun gaude Europan liderrak diren herrialdeetatik edo Amerikako Estatu Batuetatik. 2006rako Euskadi Informazio Gizartearen planean eta e-Gipuzkoa 2005 planean seinalatutako helburuak erdiets ditzakegu datazen bost urteotan.

Lorpen hori gorabehera, ez dago erabat bermatuta epe horretan, teknologia berrien erabilerari dagokionez, gazteen eta ondoen prestatutakoen eta adin gehiagokoen eta hain prestatuta ez daudenen arteko aldea desagertzea. Azken kolektibo horiek Informazio-gizartearen integrazeari dagokionez, aldeak are handiagoak ez izateko ahalegin bereziak egin beharko dira.

Informazio eta komunikazio-teknologia berrien aplikazio erabat zabaldua, gertatzen ari den aldaketa-prozesuko giltzarri bat izateaz gain, edozein organizaziotako kudeaketan eta funtzionamenduan zuzen-zuzenean eragiten duten elementuetako bat ere bada. Teknologia erabat "horizontala" da, organizazioetako edozein prozesutan zerikusia duena.

Ez dago aipatu behar teknologia horiek duten garrantzia. Izan dezaketen erabileraren atalasean egonda ere, teknologia horien garapenak harremanetarako ditugun jokamoldeak modu sakonean aldatuko dituztela onartuta dago adituen artean.

Hezkuntzaren alorreko aldaketak: prestakuntza gero eta garrantzitsuagoa izango da eta ezagutzaren gizartearen murgilduko gara.

Ikerkuntza eta prestakuntza gakoak dira lurralde guztien etorkizunerako, iraganean ere izan diren bezala. Gipuzkoak ez dauka erraz merkatura daitekeen aberastasun naturalik eta erabil daitekeen lurra ere nahiko eskasa da; hortaz, giza kapitalak etorkizunean ere erabat funtsezkoa izaten jarraituko du.

Teknologia berriak giltza izango dira hezkuntzan: hezkuntza-komunitateko kideen arteko komunikazioa ahalbidetzen duten bitartekoak izateaz gain, edukien eta ikaste-prozesuaren beraren euskarria ere badira. Azkenik, lagungarriak eta baliabide-iturria ere badira. Labur esanda, mundu guztiaren ezagutzara zabalik dagoen leihoa dira teknologia berriak.

Espazio-denbora binomioa hausteko gai izanik, informazio eta komunikazio-teknologiak etorkizunean profesionalen etengabeko prestakuntzarako eta informaziorako euskarririk eta bitartekorik garrantzitsuenak izango dira. Bizitzan prestakuntzan emango ditugun orduak gehiago izango dira eta horrek hezkuntza-sistema ikasteko modu berri horretara egokitzea eskatzen du.

Eskola-porrotaren tasak ⁴ gutxitzeko alderdirik garrantzitsuenetakoak izango dira prestakuntzarako motibazioa eta prestakuntza integrala bera. Gizakien porroten % 75 ez dira izaten gaitasunik ezagatik, pertsonen motibazio eskasagatik edo jarreragatik baizik. Hortaz, emozioen alderdiari zor zaie gehiago adimenari baino. Horiek horrela, Gipuzkoak laguntzeko mekanismoak prestatu beharko ditu. Etorkin asko heltzeak ere, horiek egokitzeko eta moldatzeko beharizan zehatzak izango dituztela, ahalegin berezia egitea eskatuko du.

⁴ Aurreko urteotako tasekin alderatzea zaila izango den arren, gaur egunera arte, ikasleen % 18k ez zuten lortzen bigarren hezkuntzan graduatua.

Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

Hori guztia hezkuntza-sistemarentzat erronka bat izango da eta, gainera, horrek irakasleak birziklatu beharrak handituko ditu.

Emakumezkoak ordaindutako lanean sartzea.

Datozen urteotan gero eta gehiago izango dira ordaindutako lanetan hasiko diren emakumezkoak. Belaunaldi berrietako emakumezkoek ez dute etorkizuna planteatuko ordaindutako lanik gabe. Horrek, dagoeneko, ez du inor harritzen.

Europako Kontseiluak emandako jarraibideen arabera, 1997ko azaroan izan zen Luxenburgoko goi-bileran hartutako erabakiak garatuz, 2005eko urtarrilean biztanleria aktibo guztiaren batez besteko enplegu-tasak % 67koa izan beharko du eta emakumezkoen enplegu-tasak % 57koa. 2010. urterako helburua hauxe litzateke: enplegu globalaren tasa % 70ekoa izatea eta andrazkoena % 60tik gora egotea.

Gipuzkoako lurraldean, 2001. urtean emakumezkoen enplegu-tasa % 37 inguruan zen eta gizonezkoena % 62,6koa zen. Datu horiek erakusten dute, 2005. urterako helburua lortzeko, andrazkoen kasuan 20 puntuko alde negatiboa dagoela.

Aldaketak lan-harremanetan.

Finlandia 2015 txostenak informazio-gizarteak laneko etika berri bat eskatzen duela ohartarazten du. Buruko lanaren eta giza baliabideen garrantzia gero eta handiagoa da. Enpresariak neurri handiagoan egongo dira enplegatuen baldintzapean edo menpean. Lan-merkatua, oro har, malguagoa izanik, egun dauden kontratazio-sistemak egokitu beharko dira. Pertsonalik kualifikatuenera enpresan eutsi ahal izateko, enpresek

etika eta ingurumenaren alorretako arau berriak jarri beharko dituzte indarrean. Langileek, euren aldetik, etengabe indartu eta sendotu beharko dituzte gaitasun praktikoak. Enpresetan lidergo-modu berriak sortuko dira, talde-lanerako aproposagoak izango direnak. Informazio-gizarte merkataritze-alorreko jarduera guztietara helduko da eta zerbiztuen sektoreak jarraituko du enplegu-iturririk behinena izaten.

Aldaketa demografikoak.

Datozen urteotan, Gipuzkoako bilakaera demografikoa dela eta, biztanleria gero eta zaharragoa izango da eta gizarte gero eta gehiago izango dira egongo diren kulturak. Labur esanda, honako hauek izango dira joera demografikorik garrantzitsuenak:

- *Jaiotza-tasa txikiak euren hartan jarraituko dute.*
Gipuzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herrialdeen antzera, zenbait urtetatik hona emakume haur bateko ugalkortasun-indize sistematikoak izan ditu. Itxaropen ekonomikoak hobeak badira, familiarentzako laguntzak emanez gero edo etorkinen seme-alabak direla eta, jaiotza-indizeak zertxobait haz daitezke, baina inork ez du uste belaunaldien ordezkapena bermatzen duen emakume 2,1 haurretako indizera helduko denik.
- *65 urtetik gorakoak biztanlerian gero eta gehiago izatea.*
Eskuan ditugun datu guztien arabera, Gipuzkoako biztanleria gero eta zaharragoa izango dela gero eta argiago dago. Horrela bada, 64 urtetik gorakoak 1985. urtean % 10,7 izatetik 2000. urtean % 17,6 izatera pasatu gara. Egindako proiektzioen arabera, 2020. urtean % 24,2 izango da 64 urtetik gorakoa; hots, lau gipuzkoarretatik bat.



Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

- *Gazteen kopuruak gero eta txikiagoak, dinamismo eskasagoa.*
Aldi berean, gazteen (0 eta 19 urte bitartekoak) kopurua gero eta txikiagoa da. 1985. urtean % 30,2 zen eta 2000. urtean 17,7. EUSTATEk egindako proiektzioen arabera, joera hori gero eta nabarmenagoa da eta 2020. urtean gazteak biztanle guztien % 17 edo 18 izango dira.
- *Bizi-itxaropena luzeagoa eta horrek are zahartze handiagoa ekarriko du.*
Bizi-itxaropena dela eta, gehien haziko diren segmentuak adinik zaharreneetakoak izango dira, bai kopuruz, bai ehunekotan. EUSTATEk hala adierazten du. 65 urtetik 74ra bitartekoak azpitaldean 16.000 pertsona gehiago egongo dira eta biztanleria guztiaren % 12 izango dira adin-azpitalde horretakoak. 75 eta 84 urte bitartekoak azpitaldean 20.000 pertsona gehiago egongo dira eta biztanleria guztiaren % 4,6 izatetik % 8 izatera pasatuko dira, ia halako bi. 85 urtetik gorakoak taldearen hazkundera are handiagoa izango da eta 10.000 pertsona izatetik 25.000 izatera pasatuko dira talde horretakoak; hortaz, kideak bikoiztu baino gehiago egingo du talde horrek.
- *Pentsioen sistemaren bideragarritasunaren gaineko eragina.*
Biztanleria zahartzeak tira-birak sor ditzake egun dagoen erretiro-agatiko pentsioen sisteman. Europar Batasunak espainiar estatuari ohartarazi dio dagoen erreserben fondoak ez duela sistemaren bideragarritasuna bermatuko 2015. urtetik aurrera.
Europar Batasuneko politika ekonomikoaren batzordearen datuen arabera, espainiar estatuan pentsioetako gastu publikoak BPGren % 7,9an hazi beharko du 2000.etik 2050.era; batez ere, epe horretako azken 30 urteetan.
- *Pertsona bakarreko edo guraso bakarreko familien kopurua gero eta handiagoa.*
Ezkontza edota bakarrik dauden pertsonen kopurua gero eta handiagoa.
Familiaren egiturak erabat aldatzen ari dira. Pertsona bakarra bizi den bizitokiak gero eta gehiago dira eta etengabe hazten ari dira, era berean, banaketan eta dibortzioen indizeak. Jaiotza-tasa txikiagoak egotea gaineratzen badiogu horri, etxebizitza bakoitzeko batez besteko pertsona-kopurua etengabe behera ari denaz ohartuko gara. Gainera, joera horrek jarraitu egingo du datozen urteotan. Horiek horrela, biztanle-kopuru berdintzurako askoz ere etxebizitza gehiago beharko dira.
- *Etorkinen kopuru handiagoa.*
Segur aski, emigrazio berriaren fenomenoak –batez ere Afrikaren iparraldeko herrialdeetatik, Afrika beltzetik, Latinoamerikatik eta Europaren ekialdetik datorrena- areagotu egingo da datozen urteotan. Gizarteak zabalik egon beharko du lan egiteko edo ikasteko prest dauden pertsonak integartzeko eta, aldi berean, ekin beharko du iritzi publikoa jatorrizko herrialdeetan dituztenak baino gizarte-prestazio hobeen bila datozen etorkinen aurkakoa izatea. Horretarako, inmigrazio-politika aktiboak hartu beharko dira eta kulturen arteko elkarbizitzarako eredu positiboak sustatu. Halaber, etorkinei gizartearen integraztea erraz eta ahalbide diezaieten zerbitzuak antolatu beharko dira.
- *Aniztasun soziokultural handiagoa.*
Beste kultur ingurune batzuetatik etorritako pertsonak, batetik, eta gaur egun komunikazioetarako eta trukeetarako dagoen erraztasunak, bestetik, aniztasun soziokultural handiagoa ekarriko dute, lurralde berean kultur eremu ezberdinetako pertsonak biziko dira eta.

Iraultza zientifiko-teknikoa

Ordenadoreak ezin pentsa genitzakeen aukerak ekarri ditu garapen zientifiko-teknologikoa azkartzeko. Zientziaren eta teknologiaren edozein alorretan egun dugun aurrerapen itzela ezinezkoa izango zen ordenadoreak kalkulurako eta modelizaziorako duen gaitasuna gabe.

Honen moduko txosten bati ez dagokio gizartearen egitura errotik aldatzea ahalbide dezaten aurrerapenak jasotzea. Hala ere, aldaketa sakonak gertatuko diren zenbait alor aipatuko ditugu:

- *Bizitzaren zientziak.*

Giza genomaren ezagutza handiak eta ingeniartza genetikoak orain arte kronikoak izan diren hainbat gaixotasun sendatzea ahalbidetuko dute. Horrek berekin ekarriko du bizi-itxaropen luzeagoa. Beste alde batetik, elikagaien ekoizpenak gosea desagerraraz dezake mundutik. Aplikazio aurreratuaren atalasean egonik ere, aurkikuntza zientifiko horiek zabaltzeak gizarte-bizitza aldaraziko du, zalantzarik gabe.

- *Mikroteknologia eta nanoteknologia.*

Bi teknologia abiatu berri hauek produktuetan eta ekoizteko prozesuetan eragin handia izango dute. Orain arte ezin pentsa zitezkeen lekuetan, hala makinetan, nola prozesu biologikoetan, sartu ahalko diren oso dimentsio txikiko sistema konplexuak sortzea ahalbidetuko dute teknologia horiek. Sistema konplexu horiek sartutako lekuaren funtzionamendua atzemateko, informazioa transmititzeko eta unean-unean modu prebentiboan jarduteko gai izango dira. Funtzionamenduaren optimizazioak, segurtasunak eta izan daitezkeen matxurei, akatsei eta abarri aurrea hartzeak makinaren kontzepzioari eta aplikazioari beste dimentsio bat emango diete.

- *Konplexutasunaren zientzia berriak.*

Ikuspegi sinplifikatzaile, murriztaile eta mekanizista izan duen zientzia klasikoaren eskemak erabat gaindituta, zientziaren eremuan beste alor batzuk azaltzen ari dira: sistemen teoria, biologia, sistema irekien termodinamika, kontzientziaren, ezagutzaren eta pertzepzioaren teoria, konplexutasunaren matematika (kaosaren teoria, fraktalen geometria, topologia...).

Jakintzaren alor hauek, ordenadore modernoek duten kalkulurako eta modelizaziorako gaitasunari gehituta, espezialista handi gutxi batzuen jakintza-alorretan zatikatutako metodo eta eskema murriztaileetatik abiatuta atzemateko eta teorizatzekeo zailak diren giza eta gizarte-fenomenoak gero eta ulergarriagoak izaten lagunduko dituge.

Petrolioaren ekonomiaren amaieraren hasiera.

Adituen ustez, 2015-2020 aldian hidrokarburoak asko garestituko dira. Horretarako arrazoiak erreserba erabilgarriak, mundu mailako eskaerak oraingo mailetan jarraituz gero, agortzen hasia izango da. Prezioa petrolioarenari loturik duen gasa ere garestitu egingo da. Horiek horrela, izan badira zenbait ekimen petrolioan oinarritutako ekonomia-eredutik beste batera aldatzen hasiaz pentsatu eta horren arabera jokatu beharra azpimarratzen dutenak.

Europar Batasunean kide gehiago sartzeara eta sakontzearen eta horrek ekarriko duen problematika.

Europar Batasunean kide gehiago sartzeara eta horretan sakontzeak prozesu horien finantziario eta kudeaketa-alorretako problemak ekarriko dituzte. Hori guztia Gipuzkoako eszenategiak definitzeko orduan kontuan hartutako beste alderdi bat izan da. Europar Batasunean kide gehiago



Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

sartzeak berekin dakar EBren oraingo egiturak berrantolatzea eta horietan sakontzea. Egitura horiek, gainera, ez dira guztiz sendotu eta finkatu orain arte, kideak diren herrialdeen arteko desadostasunak direla medio. Konbentzioaren esku utzitako prozesu bikoitz hori oso konplexua da eta datozen urteotan aztergaia eta eztabaidagaia izango da.

Organo erabakitzaileetan erregioek parte-hartze handiagoa edo txikiagoa izateaz har dezaten erabakia Gipuzkoan eragina izango duten faktoreetako bat izango da.

Ingurumena gero eta narriatuago munduan.

Ezin dugu jakin nolakoa izango den horren eragina, baina munduan, eta batez ere Asia aldean, ingurumena gero eta narriatuago egoteari garrantzia ematen hasi zaio etorkizunari begirako azterlanetan. Zalantza eta kezka handiak daude horrek izan ditzakeen ondorioen inguruan, batez ere, Txinan eta Indian -alde hartako herrialderik handienak aipatzearren- aurreikusitako hazkunde ekonomikoari mundu mailan erregio horrek hondakin industrialak eta elektronikoak hartzeko eta tratatzeko orduan duen rola gehituz gero; izan ere, ingurumenean eragin handia izan dezake horrek guztiak.

Mundu mailan arrisku militar berriak.

CIAREN Global Trends 2015 txostenaren arabera, hainbat gobernuarekin eta gobernuz kanpoko erakunde militarrekin gatazkak etengabe izango dituzte. Halaber, txostenak misilez egindako erasoen arriskua, garatutako herrialdeen arteko erregio mailako gatazken arrisku txikiak eta garapen-bidean dauden herrialdeen arteko gerrak egoteko etengabeko mehatxua aurreikusten ditu. Testuinguru horretan, AEBk bere lidergoa ezarriko

du, globalizazioa bultzatuko du eta hortik onura aterako du. Hala ere, bere hegemoniak herrialde lagunekin eta etsaiekin eta gero eta boteretsuagoak diren enpresa multinazional handiekin problemak sortuko dizkiola ere gerta daitekeen zerbait da. Interes ekonomikoa izango da AEBren politika gidatuko duena eta ez kanpo-politikaren helburuek.

b) Gipuzkoaren gaitasun endogenoa.

Izaera prospektiboa duen hausnarketa estrategikoaren funtsezko arrazoiak, gaur egun abian jartzen ditugun jardueren eta ekintzen bidez, orainalditik eraiki dezakegun etorkizuna da.

Aurreko kapituluan gure etorkizuna baldintzatuko dituzten kanpoko joerak aipatu ditugu. Gipuzkoatik horietan eragiteko ditugun aukerak eskasak dira. Baina kolektibo guztiek ez dute berdin erantzuten eta ez dute izaten bilakaera berdina inguruko faktore jakin batzuen aurrean. Barne-barnetik sortutako eta bere-berea den erantzuna eman dezake batek; horretan barruko testuinguruak eta gizarte bakoitzaren gaitasunak zerikusia dute. Azken hau, gainera, indar-ideiekin lotu-loturik dago. Gipuzkoarako egon daitezkeen etorkizunak idazteko orduan, hausnarketa-taldeak honako hauek hartu ditu kontuan:

1. Jarrerak.

2. Balioak.

3. Proiektu kolektiborik dagoen ala ez.

Gipuzkoak barruko indar-idea edo faktore horietan eragiteko duen gaitasuna handia da eta horiek denboran izango duten bilakaera kanpoko faktoreena bezain garrantzitsua da. Horrela bada, kanpoko

Gipuzkoa 2020 (G2020). Lau eszenategi hausnarketa egiteko

gertaerek eta joerek baldintzatu arren, etorkizuna, neurri batean, antolatze dugu gaitasunaren eta hari aurre egiteko sortzen diren gizarte-jarreraren menpe dago.

Hurrengo orrialdeetan islatuko dugu zeharkako izaera duten indar-idea edo faktore horien aplikazioa, eszenategi ezberdinetara egindako aplikazioa alegia. Horietako bakoitza faktore horiei emandako balioaren arabera izan daitezkeen bilakaeren emaitza da.

Aurrekoa kontuan hartuta, etorkizuna faktore batzuen baldintzapean dagoela esan dezakegu. Hona hemen faktoreak:

Herritarrek, eragile politikoek eta ekonomikoek eta gizarte-eragileek har ditzaten jarrerak. Jarrerak honako hauek izan daitezke:

Pasiboak: aldaketak pairatu behar izaten dira.

Erreaktiboak: aldaketaren zain egoten da erreakzionatzeko.

Proaktiboak: aldaketari aurrea hartzen zaio. Are gehiago, eragiteko margena badago, nahi den aldaketaren alde egiten da.

Akordio tazitua edo esplizitua tartean, gizartearen garapenerako eta elkarbizitzarako beharrezko balioak berdina izatea guztientzat:

Pertsonarekiko eta bere eskubideekiko **errespetua**.

Elkartasun-printzipioak oso zabaldua egotea, baita gizarte-ongizatea orokorra (gutxienezko zerbitzuak denentzat) izatea ere.

Ingurumena zaintzea.

Sexu bateko zein bestekoen arteko berdintasuna.

Gizarte-integrazioa eta gutxiengoekiko errespetua.

Gizarteak sustatzen dituen eta egungo mundu mailako testuinguruan aurrera egiteko beharrezko diren balioak. Batez ere kontuan hartu direnak honako hauek dira:

Lidergoa. Aldaketa eta transformazio-prozesuetan liderrak behar izaten dira. Gizarte batean ez badago liderrik, gizarte horrek ez du, ez norabiderik, ez aukerak sortzerik. Lidergoak Gipuzkoako elkar-bizitza-eremu guztietara heldu beharko du. Gipuzkoarako etorkizuna ona eraikitze lanean politika sektorialik garrantzitsuen eta funtsezkoenetakoa dugu liderrak prestatzea.

Parte-hartzea. Gizarteak ez badu aldaketa-prozesuetan parte hartzen, ez da mobilizazio nahikorik egoten hausnarketak, aurrea hartzeak eta ekintzak osatzen duten triangulu estrategikoa ixteko. Parte hartzen duen gizarteak eraikitzen eta egiten duen gizartea da. Parte hartzen ez duen gizartea, ordea, hirugarrenek hartutako erabakien menpean dago eta, hortaz, bere interesak eta nahiak ez dira kontuan hartzen erabakitze orduan.

Elkarlana. Konplexua den eta polo asko dituen mundu batean, elkarlana aurrera egiteko eta aldaketa azkartzeko motorea da. Erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlanaz ari gara, jakina; baina ez dugu ahaztu behar kudeaketa publikoaren maila ezberdinen artekoa, ezta arlo pribatuan diharduten eragileen artekoa ere. Horiek horrela, aurrean ditugun erronkei erantzuteko estrategia moduan sareak sortzeak, eratzeko orduan, oinarrian elkarlanaren balioa du.





Proiektua gizartean. Faktore honen eragina aztertzeko orduan, hausnarketa-taldeak hainbat hipotesi hartu ditu kontuan. Hona hemen:

Proiekturik gabeko gizartea: Gizarte pasiboa eta atomizatua da, herritarrek balio berdinak ez dituzten gizartea alegia; edo, balio batzuk berdinak izanda ere, jokatzeko moduak aldatzeko prest ez dagoena. Besteei exijitzen die bere problemak konpontzea, baina ezin du lortu guztien oniritzia izan dezan proiektu bat problemei aurre egin ahal izateko.

Zenbait proiektu sortzen dituen antolatutako gizartea: Zenbait ardatzen inguruan antolatutako gizarte zibilak era guztietako elkarteak, fundazioak eta entitateak eratzen ditu eta hauek balio jakin batzuk garatzeko, desoreka batzuk gainditzeko edo problemei konponbidea aurkitzeko lan egiten dute.

Proiektu integratzailea duen gizartea: Jarrera proaktiboa eta balio berdinak dituen gizarte zibila prest dago integratzeko eta artikulatzeko eta horrela prozesua amaitzeko baldintzak ditu. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan handia dago, gizarte zibilak berak bakarrik aurre egin ezin dien eta jarduketa publikoak ere lankidetzaz pribaturik gabe heldu ezin dien estrategia globaleko gaiei aurre egiteko.



Gerta daitezkeen lau etorkizun: - GIPUZKOA KUZKURTUA - GIPUZKOA PARADOXIKOA
- GIPUZKOA DESGOGARA - GIPUZKOA BERRITZAILEA

HITZAURREA.

2020rako Gipuzkoako eszenategiak burutzeko hainbat eztabaida egon dira eta horien berri izatea azken testua interpretatzeko lagungarria izan daiteke.

Lehenengo eta behin, Gipuzkoako tamainaren inguruko gaia dugu. Lurraldea, biztanleria edo beste edozein datu har daiteke erreferentziatzat. Lurraldea hain txikia izanik, eta gutxienezko errealismoaren ildotik, zalantzan jartzen da inguru hurbileneko gainerako lurraldeetatik bereiz daitekeela dioen hipotesia. Gipuzkoan gerta daitekeena eta Euskadin, Espainian zein Europan gerta daitekeena ezberdinak izan ote daitezke? Gure kasuan, galdera hori egiteak Gipuzkoarako baino izango ez diren eszenategiak planteatzeak edo burutzeak zentzurik ote duen planteatzea dakar.

Prozesuan galdera hori behin baino gehiagotan eginda, erantzun egin zaio, eta baietz erantzun da, eszenategiak burututa. Erantzuna ez da beste alor askotan egindakoaren ondorio mimetikoa –hori arrazoi txarra ez bada ere-, kanpoko eragina onartuta ere, Gipuzkoako tamainari bere-bereak dituen eszenategiak ezartzeko oztopoa ez dela konbentzimendu osoz iritzi izanaren ondorioa baizik. Horiek horrela honako hau esan dezakegu:

- Ez dago eskalarik, tamaina edozein izanik ere, etorkizun estrategikoaz hausnarketa egitea behar ez duenik. Gipuzkoak

2.000 km² ditu eta 680.000 biztanle 2002. urtean eta zentzu honetan ez da salbuespena.

- Hausnarketa estrategikoa ez da, inondik ere, historiaren edo bizitzaren kontzeptu solipsista batetik abiatutako espekulazioa. Hemen aurkezten dugun hausnarketa estrategikoak badu funtsean oinarritzko perspektiba hau: era guztietako inguruak eta arlokoak, geografikoak, ekonomikoak, politikoak, administrazio-mailakoak, kulturakoak eta abar kontuan hartzen dituen eta horren barruan eta elkarreraginez Gipuzkoan dagoeneko garatu izan den eta etor-kizunean garatuko dela aurreikus daitezkeen hura alegia. Baina inguru horiek izan dezaketen eraginera ez da mugatzen; izan ere, batez ere, duen nahiagatik, proiektuagatik eta ahaleginengatik Gipuzkoak etorkizun horretan kokatzeko eta aurre egiteko dituen berezitasunak eta ñabar-durak ere kontuan hartzen ditu.

- Garatutako prozesuak hausnarketan parte hartu dutenak Gipuzkoa gaur, eta are gehiago etorkizunean, espazio egokia dela eta berezitasun batzuk bere-bereak dituela pentsatzera eramán ditu. Horrela bada, hausnarketa estrategikorako proiektu baten inguruan eztabaidatzea eta hori burutzea eta abian jartzea komenigarri dela iritzi diote.

Mundu ireki eta ondo komunikatu batean; hau da, kultura, gizarte eta ekonomia-mailan gero eta konexio eta lotura gehiago dituen eta gero eta homogeneoagoa izango den mundu batean bakoitzak bere-bereak duenak, besteetatik bereizten duenak, berezia denak lekua izaten jarraituko du. Tokian tokikoaren eta unibertsalaren arteko gatazka

Gerta daitezkeen lau etorkizun: - GIPUZKOA KUZKURTUA - GIPUZKOA PARADOXIKOA
- GIPUZKOA DESGOGARA - GIPUZKOA BERRITZAILEA

horretan oreka berriak sortuko dira eta, paradoxikoa bada ere, bi aldeak sendotzea eta indartzea ekar dezake horrek.

Hemen aurkezten dugun lanaren azken emaitzetan badago mailakatze bat negatibotik positibora. Eszenategi positiboan alde ezaugarri bereko inguru zentrokideek egiten dutela edo aurka kontrako inguruek egiten dutela onartuta, eragin horri ez zaio erabatekoa irizten. Baieztapen horrek eszenategi negatiboentzat ere balio du.

Horrekin gizarte baten arrakasta edo porrota bere esku dagoela azpimarratu nahi dugu, are gehiago mundu mailako gertaeretan eragiteko aukerarik ez duen edo aukera eskasa duen komunitate txikia bada. Besteak beste, komunitate bizia, dinamikoa, sortzailea, bere buruan konfiantza duena, malgua, egokitzen dakiena bada, arrakasta izan ahalko du zirkunstantzia orokorrak kontra izanda ere.


Beste alde batetik, inguru positiboa bada, baina gizarteak beharrezko estimulua eta prestatutako pertsonak, proiektua zein lidergoa izan ezean, bere barruan itxi egingo da gizarte hori eta herrialde aitzindarien erritmoari ezingo dio eutsi.

Funtsezkoa, eszenategi batzuk edo besteak gertatzea benetan eragin dezakeena, gipuzkoar gizarte mugiaraz dezaten balioak eta horrek har ditzan jarrerak dira. Azalpenak bilatzeko kanpora begiratzeak negatiboa indartuko du, bere burua hobeki ezagutzeko eta izan ditzakeen gaitasunak garatzeko barrura begiratzea giltza izango da itxaropena garaitu dadin.

Hausnarketa horren sintesia da prozesu guztian zehar errepikatutako esaldi alternatibo bat, eszenategi guztientzat oinarri bilakatu zena: "inguruak baldintzatzen du, baina ez da erabakigarria".

Eszenategiak irakurtzeko vademecuma

1. Irakur beza irakurleak **nahi duenerako, etorkizuna asmatzeko izan ezik**. Ez dago eszenategien irakurketa txarragorik, haietan datozen hogeitau gertatuko denaren edo gipuzkoarrok egin nahi dugunaren xehetasunak deskubritzen ahalegintzen dena baino. Kontua ez da, ez asmatzea, ez planifikatzea. Eszenategiek lurralde jakin batean datozen hogeitau gerta daitekeena islatu nahi dute, koadro "arrazoitua" margotu nahi dute eta epe hori luzeegia da koiunturek gehiegi baldintza dezaten.
2. Eszenategiak **batera eta modu integratuan irakurri beharra dago**. Horrelaxe izango du zentzua horietako bakoitzak eta hobeto interpretatu ahalko dira. Asmoa ez da izan eszenategi bakoitzean Gipuzkoako etorkizunari buruzko hipotesi jakin batez gain, honi dagozkion alternatiba eta elementu guztiak jasotzea. Eszenategi guztietan jaso bezala, etorkizun hori bideratu edo orientatu daiteke batera edo bestera eta etorkizuna guztien edo batzuen zati batzuek osatuko dute. Eszenategiak bereizirik idazteko eta agertzeko arrazoa, eszenategien konbinazioa gorabehera, bakoitzak, inguruko zirkunstantzien eta norberaren jarreraren eta ekintzen arabera, etorkizunerako joera bat agertzea da.



3. **Batez ere orientazioak dira.** Eszenategiek, hain zuzen ere, horixe jaso nahi dute. Joerak eta ez proiektuak. Batek Gipuzkoan datozen hogeitun urteotan izango diren edo garatu beharko liratekeen ekintzak zeintzuk diren jakin nahi izanez gero, hobe du hemen jasotako eszenategiak aztertzen denbora alferrik ez galtzea.

4. **Aurretik ezin jakin edo ezin ikus daitekeena hausnarketatik kanpo dago.** Beti bezala, gizakion arrazionaltasunaz ezin aurreikus daitezkeen hori asko izango da eta eragin handia izango du. Eszenategien metodoa horren jakinaren gainean dago. Hori onartzeak ez dio legitimazioa kentzen hausnarketa-prozesuari; alderantziz, sendotu egiten du. Hausnarketa estrategikoaren funtsezko balioa adi egoten laguntzea da; norberaren menpean dagoenari ez ezik, besteen ekintzaren ondorioa izan daitezkeenari eta giza kontrolatik kanpo dagoenari ere adi egoten laguntzea alegia.

5. **Eszenategiak, batez ere, jarduteko markoak dira.** Ez dira irakurgaiak edo horren inguruan pentsatzeko ariketak. Lehenago edo geroago gipuzkoarrok erabakiak hartu eta zenbait ekintza bideratu beharko ditugun markoak jasotzen dituzte, edo jaso nahi dituzte behintzat. Eta erabaki eta ekintza horiek era batekoak edo bestekoak izango dira geure lurralderako nahi dugun orientazioaren arabera. Bertatik ibiltzeko zabaldu beharreko bideak ez dira berdinak izango Gipuzkoa kuzkurtu baterantz, desgogara dagoen Gipuzkoa baterantz, edo Gipuzkoa paradoxiko edo berritzaile baterantz abiatzen bagara.

6. Horregatik guztiagatik: irakurleak ez du ahaztu behar eszenategi hauen idazketa **hausnarketa estrategikorako prozesu baten barruko beste urrats bat** besterik ez dela. Argitalpen honek gaur arte egindako bidea, egindako lana, jasotzen du. Baina ez du jasotzen bihar egin beharrekoa. Eszenategi hauek ez dira ezeren bukaera. Aitzitik, zentzua badute (eta horiek idazten parte hartu dugun guztion nahia horixe da), aurrera jarraitzeko gonbidapena dira.



1. Eszenategia: GIPUZKOA KUZKURTUA.

XXI. mendeko lehen bi hamarkadak iraganda, 2020. urtearen amaieran, Foru Aldundiak sustatutako hausnarketa-prozesuaren aurreikuspenik okerrenak bete dira.

2020. urtea. Gipuzkoako gizartea gizarte txirotua da, gainbeheran dagoena, bere oneratzeari ekiteko oinarri izan daitezen ideiarik edo baliorik gabea

Joan zen mendearen amaierako gipuzkoar enpresarik garrantzitsuenetako batzuk eta enpresa ertain eta txiki asko eta asko desagertu dira edo talde atzeritarren filialak dira.

Gizarte zibil ahul batek kuzkurtuta ikusten du alarma guztiak piztu egin direla. Baliagarri izan dakion erreferenterik gabe, zailtasun handiak ditu gero eta handiagoak diren ezberdintasunen, gatazken, gizarte-bazterketaren, beldurraren eta segurtasunik ezaren aurrean erreakzionatzeko.

Indarkeriak bere hartan jarraitzeak eta perspektibarik ezak azkenean gizarte osoan eduki dute eragina eta erantzun indibidualista ematen zaio egoerari

Gizarte-tentsioak eta terrorismoak azkenean eragina izan dute gizarte osoan eta modu indibidualistan erantzuteko baino ez da gai gizartea. Arlo publikoarekiko interesa galtzen du eta egin beharreko aldaketa estrukturalen aurrean kuzkurtu egiten da, gatazka gehiago sortzearen beldur. Nazioarte mailako elkarlana dela eta, kontrolpean egon arren, bortizkeria politikoak –mehatuak, atentatuak eta estortsioak– jarraitzen du eta egondako gainbehera sozial eta urbanoaren ondoriozko beste indarkeria-modu batzuk azaleratzen ari dira. Etorkizunaren aurrean zalantza da nagusi eta horrek ez dio gizarteari arriskuak hartzeko adorea ematen. Gizarte-giroan beldurra, apatia eta zalantza gailendu dira.

Agerian dago ezberdintasunak eta gizarte-tentsioak gero eta handiagoak edo gehiago direla

Horren emaitza gizarte pobretua, gainbeheran dagoena eta erreakzionatzeko balioak bere egiteko edo balio horiek sortzeko sostengu izan dadin erreferenterik gabekoa da. Guztiek onartutako proiekturik ez egoteak indibidualismorako joera indartu du, balio kolektiboen eta elkartasunaren kaltean. Desengainua eta intolerantzia herritarren artean nagusi izanik, egoerara moldatzen direnen eta egoerari aurre egiten dioten arteko bereizketa dago. Elizek ere balio-transmisioan pisua galdu dute, baina ez dago alternatiba laikorik. "Gatazka politikoa" konpontzeko ahalegina agendan dago baina desengainuak ia ez du itxaropenerako zirrikiturik uzten etnien oinarritutako nortasun-sentimenduaren eta egoerara moldatzearen arteko ezkutuko tentsioa bizi duen gizarte batean.

Gizarte-bazterketaren arriskua agerikoa da, gizarte-maila zabal-zabal batzuen artean enplegu ez-egonkorra orokorturik, eta bi mailako gizarte bat hasi da azaltzen, elkartasunik ezaren ezaugarri asko dituena. Horrek guztiak ghettoak sortzeko arriskua areagotu egin du.

1. Eszenategia: GIPUZKOA KUZKURTUA.

Indarkeriarekiko kezka handitu egiten da eta horrek segurtasun-eskaera handiagoa sortzen du

Gipuzkoak 2002. urtean Europako daturik hoberenetako batzuk zituen, baina delinkuentzia izugarri hazi da. Poliziaren iazko txostenean jasotako mila bizilaguneko izandako 127 delituko kopuruak ranking horretako goiko postuetan jarri du Gipuzkoa.

Halabeharrezko ondorioa, Europa guztian, segurtasunaz gero eta kezka handiagoa egotea da eta horrek bide ematen du politika autoritarioak abian jartzeko eta herritarraren gaineko kontrol handiagoa ezartzeko. Zer esanik ez, horrek are gehiago geldiarazten du gizarte.

Gipuzkoak biztanleria zahartzearen eta jaiotza-tasa txikiaren ondorioak jasaten ditu.

Jaiotza-tasa 1980ko hamarkadatik oso txikia da eta horrek berekin ekarri du eskolarako adineko bizilagunen kopuruak gero eta txikiagoak izatea. 2015etik aurrera, gainera, jaiotza-tasaren bigarren murrizketa sakonagoa egon da, seme-alabak izateko bizilagunen kopuruek era berean azken urteetan behera egin dutelako.

Fenomeno hori leundu dute neurri batean etorkinek; hala ere, biztanleriaren zahartzea azkartu da. Beste alde batetik, medikuntzaren eta osasunaren arloko aurrerapen zientifikoei esker, bizi-itxaropena 86 urtekoa da emakumezkoentzat eta 79 urtekoa gizonezkoentzat, 2020ko abendu honetan EUSTATEk emandako azken datuen arabera.

Gizarte-babeseko sistemai eusteko zailtasun nabariak daude

Zahartze-prozesuak babes-sistemai eustea arriskuan jartzen du eta belaunaldi ezberdinetakoen arteko elkartasuna hausteko arriskua ere badago. Zailtasunik handienak adinekoei ematen zaizkien zerbitzuen ingurukoak dira. Zerbitzu horien beharrezko birmoldaketa atzeratu egin da aurreko legealdietako akordio politikorik eza tartean.


Emakumezkoek jarraitzen dute gero eta modu nabarmenagoan ordaindutako lanen munduan sartzen. Andrazkoen enplegu-tasa erlatiboek hobera egin dute mende hasieratik; hala ere, urrun daude, oraindik, Europako batez bestekotik.

Hezkuntzaren orientabidean genero-ezberdintasunek euren hartan jarraitzen dute, batez ere, Lanbide Heziketan eta Unibertsitateko karrera jakin batzuetan. Hezkuntza-sistemaren aldizkako berrikuspenak ez du oraindik lortu, ikasleei dagokienez, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko tradiziozko rolen banaketa modu eraginkorrean aldatzea.

Zailtasun ekonomikoak gorabehera, emakumezkoen enplegu-tasak dira hobera egiten duten bakarrak, nahiz eta aurreikuspenetatik urrun egon

Sexuaren araberako orientabide horrek eragina du lan-munduan eta lan-eskaeran desoreka handiak agertzen dira. Horrela bada, produkzio-sistemak ez du profesional nahikorik jarduera jakin batzuetarako eta langile gehiegi daude, ordea, beste jarduera-arlo batzuetan. Horregatik guztiagatik, jarduera-tasei eta enplegu-mailei dagokienez, andrazkoen tasan izandako gorakadak gorakada, alde nabarmena dago gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Biztanleria zahartzearen joerak, familiaren tamaina txikiagoa izatearen, elkarbizitza-modu berrienak, enplegu ez-egonkorrenak eta ordutegien joerak, besteak beste, etxeko lanen eta arduren kontzeptu berrian eragina dute eta, batez ere, umeak eta zaharrak zaintzearen alorrean. Alor horretan eskatzen zaizkion konpromisoak hartzeko eta gauzatzeko Administrazioak duen



1. Eszenategia: GIPUZKOA KUZKURTUA.

Hezkuntza-sistemak ez du jakin planteatzen zitzaizkion erronkei erantzuten

ezintasunak babesik ezaren egoera larriak sortzen ditu, batez ere, bakarrik bizi diren zaharrei dagokienez. Hezkuntza-sistema ikasle-kopuruaren beherakadara egokitu da, antolamendua aldatu gabe baina. Horrela bada, pertsonalaren kontratazioa, horren mugikortasuna eta, orokorrean, kudeaketa guztia mendearen hasierako mekanismo berberekin bat etorrita egiten dira. Horrek guztiak ikastegietan etengabeko plantilen errotazioa dakar eta horrela alferrikakoa da hezkuntza-proiektu aurreratua eta berritzaileak garatzeko ahalegina.

Produktzio-jardueraren eta hezkuntzaren munduaren artean dibortzio esanguratsua gauzatu da

Gizarte eta politika mailan dagoen banaketak hezkuntza-sistemari eragotzi egiten dio pertsonaren prestakuntza eta beronen lan-jarduera bateragarriak diren kontzeptu modernoarekin prestakuntzari ekitea. Etengabeko Prestakuntza, modu horretan, Lanbide Heziketako ikastegietan osagarri bat besterik ez da.; hau da, helduentzako prestakuntza arautuaren hedapena baino ez da. Prestakuntza teknologikoa soilik kontuan hartzen duen prozesu honek ez du mendearen hasierako egitura aldatu. Hala eta guztiz ere, ikastegi pribatuaren antolaketaren malgutasun handiagoa dela eta, hauek hobeto egokitu dira irakaskuntza hauen eskaerara.

Ikasle-kopuruak txikiagoak izateak eta bizitza guztian zehar egiteko prestakuntzak izandako garapen mugatuak hezkuntza-sisteman soberakin estrukturalak sortzen dituzte eta eskaintzaren doiketa edo birmoldaketa planteatzea dator horren ondorioz, baina badira bi zirkunstantzia hori oztopatu eta eragotzi egiten dutenak: sistema publikoaren eta pribatuaren arteko inkomunikazioa eta, batzuetan, antagonismoa, batetik, eta aldaketa estrukturalak, batez ere hezkuntza publikoan, eragindako problemei aurre egiteko erabaki politikorik eza. Horren guztiaren ondorioz, dimentsio handiegiko egitura bati eusten zaio eta honen kostuak eta aurrekontuak gero eta handiagoak izan arren, ez dute zerikusirik garatzen duten jarduerarekin.

Aipatu bezala, ikasle-kopuruak txikiagoak izateak eta sistema gizartearen beharretara ez egokitzeak produktzio-jardueraren eta prestakuntzaren arteko bereizketa edo banaketa gero eta handiagoa sortzen dute. Horrela bada, arlo paralelo bihurtzen dira, kultura eta hizkera ezberdinak dituzten arlo bereziak, alegia.

Ondo prestatutako gazteen emigrazioa gertatzen ari da, Gipuzkoan haienzako aukera nahikorik ez dagoelako

Produktzio-sistemak eskatzen dituen profesionalen motaren eta hezkuntza-sistematik irteten diren gazteek jasotako prestakuntza eta duten orientazioaren arteko desorekak bi norabideko migrazioa sortzen du: batetik, Gipuzkoako produktzio-sistemarako egokia ez den baina hala ere prestakuntza ona duten gazteak kanpoalderantz abiatzen dira eta, bestetik, prestakuntza eskaseko pertsonak hona etortzen dira.

Latinoamerikatik eta Afrikako herrialdeetatik etorkin batzuek heltzen jarraitzen badute ere –gehienek alde garatuagoetan gelditzea nahiago izaten dute-, Gipuzkoar gazteak gutxi dira eta, gainera, horietako asko bizitzeko eta lan egiteko aukera hobeen bila emigratzera behartuta daude. EUSTATEk emandako datuen arabera, gazteen artean % 20ko emigrazio-tasa dago. Batez ere, Europako iparraldeko herrialdeetarantz abiatzen dira gure gazteak.

1. Eszenategia: GIPUZKOA KUZKURTUA.

Akordio sakonik ezak Gipuzkoako irakaskuntzan, gizarte-bizitzan eta kultur bizitzan euskara normalizatzeko egin diren ahaleginetan ere eragina izan du.

Informazio eta komunikazio-teknologiak ez dira garatu ikasteko prozesua aldarazteko tresna moduan eta erabilera mugatua dute

Hizkuntza-lerro paraleloak egoteak, batez ere lanbide hezkuntzan eta unibertsitatean, gizartean dagoen polarizazioa elikatu, sendotu eta indartu du. Zirkunstantzia horietan ingelesa hirugarren hizkuntza gisa sartzea apurka-apurka egiten den gauza da. Gainera, ingelesa gehiago hartzen da irakasgaitzat, ikasteko eta lanbiderako prozesuko tresnatzat baino.

Gizartean hainbesteko eragina duten informazio eta komunikazio-teknologiekin gauza bera gertatzen da. Informazioa eskuratzeko eta ikasketa birtualeko gai batzuetara sartzeko irakasten da tresna erabiltzen, baina teknologia hauek sisteman sartzeak ez du aldatu tradiziozko prestakuntza-prozesua; horrela bada, eskola magistralak eta ezagutzak buruz ikasteak ezaugarriak izaten jarraitzen dute.

Lurralde-antolaketari dagokionez, inertziek Gipuzkoa osoko ikuspegi gabe garatu izana ekarri dute eta, horren ondorioz, lurraldearen desegituraketa gertatu da

Gipuzkoako lurralde-garapena eredu zaharraren defendatzailea zen antolaketarako eredu batetik abiatzen zen eta bat-bateko jardun asko izan ditu, hirigintza-arloko barruko zein kanpoko eskaerei bat-batekotasunetik erantzun baitzaie modu puntualean beti.

Horiek horrela, Gipuzkoa berez modu desorekatuan eraldatu da, osoko ikuspegi gabe eta hori lurralde guztia egituratzeko gai izan ez diren esku-hartze isolatu eta koordinaziorik gabeko onorioa izan da.

Hiri eta lurralde desoreka handiak sortu dira eta, horren ondorioz, ingurumena narriatu egin da

Toki eta udal maila indartu egin da esku hartzeko eremu eta erreferente moduan. "Lurra asmatzeko" etengabeko prozesuak eta horren ondorioz sorturiko hiri barreiatuek hiri eta lurralde mailan desoreka handiak egotea ekarri dute, baita ingurumena narriatuta egotea ere. Gipuzkoako bailara askotan joan zen hamarkadan lur lauen baliabideak agorturik, urbanizazio-eskaera berriei erantzuteko maldetako lurrak okupatu egin dira.

Agerian da higikortasunarentzat oinarrikoak diren komunikazio sareak bete-beterik daudela

Lurraldearen antolaketarako udalez gaindiko eskalak poliki-poliki onartzen dira eta, gainera, onartzen direnetan ez dago beharrezko kultur sakontasunik, ezta zehaztasunik ere. Lurraldea planifikatzeko eta bertan arrazionaltasunez eraikitzeko ideiamarkorik ez dago eta horregatik, hain zuzen ere, gertatzen da hiri-lurretan eta landa-lurretan etengabe bat-batekotasunetik esku-hartze puntual sektorialetan jardutea.

Donostialdea kontrolik gabe garatu da eta Gipuzkoako barnealdeko eskualdeek pisua galdu dute

Bideen, trenbideen, portuen eta aireportuen azpiegitura handien sistema, Gipuzkoa barruko zein kanporako eta kanpotiko mugikortasunaren euskarria dena, apurka-apurka zaharkitua geratzen ari da. Bide-sarea bete-beterik dago eta horrek inguruko lurraldeekiko lehiakortasuna galtzea dakar. Eta hori pixkanaka-pixkanaka baina etengabe.



1. Eszenategia: GIPUZKOA KUZKURTUA.

Europa bere behin betiko konfigurazioa "oraindik" egin gabe du

Lurralde barruko ekipamendu handien sistemei dagokienez ere, desoreka handiak antzematen dira eta joera horrek Donostialdeari egiten dio mesede, eskualde horretan pilatzen baitira ekipamendu handi gehienak. Ez dago lurralde historiko mugakideekin koordinaturik egindako hezkuntza, kultura eta osasunaren arloetako ekipamenduen plan integral bat.

Nazioarte mailan globalizazioa gailendu da, baina Europar Batasunak oraindik du egiteke bere behin betiko konfigurazioa. Ekialdeko hainbat herrialde sartu izana ere ez da oraindik gaiturik eta horrek, gainera, Batasunaren artikulazioa moteldu duen beste konplexutasun bat gehitu du.

Autonomiaren eta autogobernuaren garapenari galga jarri diote eta Europar erregioen boterea txikiagoa da

Zalantza-egoera horri biztanleen bizilekuz aldatzeko mugimenduen kanpoko eta barruko presioa gaineratzen zaio. Europako mugen barruan, mendebaldearen eta ekialdearen arteko desoreka dago, garapen ekonomikoari dagokionez; kanpoaldean, berriz, globalizazioak handitu egin du Europa aberatsaren eta hegoaldean Europaren inguruan dauden herrialdeen arteko aldea.

Horren guztiaren ondorioz, estatuak euren burua babesten dute eta indartzen dira eta erregioen Europaren ideiak atzera egiten du. Horrela bada, erregioak estatuaren barruan baino ez dira onartzen.

Gipuzkoak badu oraindik ere bere agendan mugaren bi aldeei eragiten dieten zenbait proiektu; hala nola, Donostia-Baiona ardatzarena, baina, era berean Espainian Europaren bultzada moteltzeko ez du lekurik uzten adostutako ekintza politikorako, ezta erakunde egonkorra izateko ere. Lankidetzaren puntualetarako jarduketak soil-soilik bidera daitezke giro horretan.

Europaren berrestatalizazioak eta erregioen konfigurazioa bertan behera geratzen esparru autonomikoa geldiarazi dute. Indarrean jarraitzen du baina indarra harturik nagusitu den neodesentralizazioaren kontzeptuarekin elkarbizitza zailean.

Autonomia guztiak homologatzen joan dira pixkanaka-pixkanaka, baita ahalmen fiskalari dagokionez ere, eta botere zentralak eskumen tasatuak banatzen ditu menpeko boteren artean. Bide horretan autogobernu maila handiagoa lortzeko egitate bereizgarriak galdu dira.

Gipuzkoak instituzio-esparru klasikoari eutsi dio

Gipuzkoak, hortaz, instituzio-esparru klasikoari eutsi dio: Batzar Nagusiak, Foru Aldundia, Udalak. Autogobernuaren garapenaren blokeoak foru organoetan defentsarako erreakzioa sorraz du eta honek kudeaketaren deszentralizazioa eta administrazioaren erreforma zaildu eta moteldu egiten ditu. Guztiak dute pertzepzio bera, ez dagoela girorik gauzak aldatzeko, ezta bizitza konplikatzeko ere, eta honek sakontasunetan murgiltzeko asmorik gabeko administrazio baten pentsamolde burokratikoaren zabalkundea eta botere funtzionarialak bere posizioetan iraunaraztea errazten du.

1. Eszenategia: GIPUZKOA KUZKURTUA.

Herritarra gero eta urrunago dago politikatik eta era guztietako hauteskundeetan parte-hartzea modu kezagarrian jaitsi egin da

Erabaki politikoak gero eta gehiago oinarritzen dira txosten teknikoetan eta "lobbi" sektorialetan. Departamentuen kudeaketa piramidala eta hierarkikoa da eta gehiago begirutzen dio bere buruari erabiltzaileari baino. Horiek horrela, Departamentuen kudeaketak saihestu egiten ditu deszentralizazioaren eskakizunak. Aldundiaren kontzeptu administratiboaren zabalkundea –hornitzaile edo eskuratzaille baino gehiago zaintzaile eta erreglamentarista den arlo publikoari buruzko ikuspegi murriztaile baten ondoan dagoena- bermatutako zerbitzu publikoak murriztean islatzen da.

Ekonomi mailan azken urteotan globalizazio ekonomikoak garapen itzela izan du

Ekintza politikoak problemak konpontzeko nahiko tresnarik ez duela agertzen duen pertzepzioak urrundu egiten ditu herritarrak esfera publikotik, eta eraginkortasun administratiboaren izenean dagoen gardentasun txikiagoaren aurrean eta zerbitzu publikoen narriaduraren aurrean jarrera pasiboa hartzera eramaten ditu, nola edo hala jazoera horiek onartzera alegia.

Alderdi politikoaren sistemak jarraitzen duen arren, partaidetza txikiagoa da eta elkarrekin mugimendua ere apurka-apurka ahulduz doa. Hala ere, ezarritako status quo-ari aurre egiten dieten gune isolatuak izan badira, demokrazia ordezkatzaillea zalantzan jartzen duten intsumisio sozialaren zenbait eratan gauzatzen direnak. Erresistentziako gune hauek, komunikazio-bide ofizialen aurrean, aldarrikapenak planteatzeko jardura sektorialetarako autoafirmazioarako mekanismoak sortzen dituzte.

Gipuzkoako enpresarik garrantzitsuenak atzerritarren esku gelditu dira

Azken urteotan garapen ekonomikoaren ezaugarriak areagotu egin dira eta globalizazio ekonomikoaren garapena itzela izan da. Horiek horrela, lehengo toki merkatuak desagertu dira edo merkatu global baten osagai bihurtu dira.


Mugarik gabe, merkatuek eta lehiak erabat internazionalizatuta dagoen ekonomia ekarri dute eta horrek aberastasuna eta enplegua modu globalean haztea ahalbidetu du. Hala ere, inguru globala aldekoa izanda ere, Gipuzkoak ez du jakin bere lekua aurkitzen. Pisu galdu du eta, larriagoa dena, erabakitze ahalmenean ere atzera egin du.

Enpresen ehunaren zatikatze historikoa ez da gai izan eskaeraren eskakizun berriei aurre egiteko eta iraganean arrakasta izandako enpresa asko atzerritarren eskuetara pasatu dira. Horiek horrela, erabakitze guneak aldendu dira.

Perspektibarik eza nabaria da eta horrela kapital eta pertsona kualifikatu askok alde egin dute. Segurtasunik ezak eta baliorik ezak gizartearen kontsumo konpulsiboa sustatu dute.

Prozesu honek guztiak eragin zuzen-zuzena du enpleguan, enplegu ez-egonkorra asko hazi da eta. Europar Batzordeak, halaber, Espainiar Estatuari ohartarazi dio dauden gizarte-babeseke sistemiei eusteko zailtasun handiak izango dituela 2025. urtetik aurrera, dauden enplegu eta kotizazio-mailek horrela segituz gero.

Gipuzkoar enpresari batzuek ahalegin handiak egin dituzte egokitzeko. Inguruko zirkunstantzietara moldatzeko aproposagoak diren enpresak antolatzeke eredu berriak planteatzen dituzte, baina ez dute erantzun onik jasotzen langileen aldetik. Sindikatuak aktiboki ari dira aldaketan aurka eta horrek geldiarazi egiten du enpresen kultura eta enpresa berriak sortzeko ere oztopoa da.



1. Eszenategia: GIPUZKOA KUZKURTUA.

Gizarteak enpresaz duen irudia ere ez da oso ona. Ez da ohartzen enpresak enplegua zein aberastasuna sortzeko eta gizartearen kohesiorako duen garrantziaz. Administrazioa eta enpresak bide paraleloetatik doaz eta ez dute lortzen, ekonomia globalean lehiatzeko beharrezko dimentsioko enpresa-proiektuak garatu ahal izateko, arlo publikoa eta pribatua lankidetzan jarduteko planak abian jartzea.

Enpresen barruan ezagutzak ez du aurrera egin, enpresen eredu berrietarako urratsik eman ez delako

Tradiziozko eskemari eusten dion heziketak ez du bere egiten bizitza guztian prestatu beharra aldarrikatzen duen kontzeptzio dagoeneko zaharra eta heziketa horrekin batera enpresek ere ez dute jotzen enpresa-eredu berrietara. Ezagutza ez da batetik bestera pasatzen, pertsonak eta taldeek dakitena ondare propioa dela eta besteekin konpartituz gero galtzen dela iritziko baliote bezala.

Gipuzkoako maila teknologikoa munduko testuinguruan ertain behekoa da. Hortik lehiakortasuna prezioan oinarritzea eta, horiek horrela, eskulanaren kostu merkean oinarrituta dauden eta merkatura sartzen ari diren beste alde geografiko batzuekin lehiatzeko zailtasuna eta, batzuetan, ezintasuna du Gipuzkoak.



Garapen teknologiko eskasa eta berrikuntzarako irekitasun eskasa

I+G (Ikerketa eta Garapena) inbertsioen portzentajea % 1,3 inguruan gelditu zen eta, azken urteetako baten batean, Gipuzkoako BPGren % 1era apenas heldu da. Horren arrazoiak enpresen egoera kaskarra, inbertsioak atzerriko enpresa matritzetan egitea eta Unibertsitateak I+G (Ikerketa eta Garapena) alorrean ekarpen eskasa egitea dira.

Gipuzkoak mundu mailako ekonomian atzera egin du eta horrek ondorioak izan ditu bizilagunen ongizate mailan

Gipuzkoako produkzio-ehunaren garapen teknologiko eskasak ez dio uzten berrikuntzak eta patenteak sortzen. Enpresak eta unibertsitateak elkarrekiko harremanik gabe, gizartea ez dago oso zabalik berrikuntzaren aurrean.

Gipuzkoako BPG Europako batez bestekoaren % 82ra ez da heltzen eta horrek ongizatean halabeharrezko eragina du. Gipuzkoarrek azken urteetan euren ekonomiak nazioarte mailan pisua galdu duela eta euren erosteko ahalmena modu nabarmenean murriztu dela ikusi dute. Eta larriagoa dena, onenen erritmoari jarraitzeko ezintasunaz kontzientzia hartzen ari dira.



2. Eszenategia: GIPUZKOA DESGOGARA.

Lurrean gehien irakurtzen duten egunkariak, interneten bidezko "Gipuzkoa Gaur" egunkariak alegia, tren errailetatik irteerako arriskuak ohartarazi berri du. Trenbide zaharretatik zirkulatzen diren eta inbertsio eskasak jasotzen dituzten trenen konparazioa erabiliz, editorialean azken urteetan gipuzkoar enpresetan apenas inbertitzen dela eta horrek dituen arriskuez ohartarazi nahi izan du. Mundu mailako ekonomiak hazten jarraitzen du, baina Gipuzkoan ekoizpen-mailak ez du aurrera egiten eta eskabidezorria geldirik dago. "Gipuzkoa Gaur" egunkariaren hitzetan, jarraipen-egoera hori gainbehera bihurtu daiteke mundu mailako parametro ekonomikoak apur bat motelduz gero.

Enpresak kudeatzeko iraganeko eskemei eustea

Azken urteotan, Gipuzkoako ekonomia, mende batetik bestera igarotzeko urteetan, 1998.etik 2001.era, garapen handiak sortzeko gaitasuna izan zuten eskemak errepikatuta bizi izan da. Jokaera kontinua horrek jardun behar duen ingurune irekiaren bilakaeratik urrundu egin du eta orain ahultasun handia du, ez badago guztiz agorturik. Merkataritza Ganberak 2019.eko Gipuzkoako Ekonomiari buruz egindako azken txostenak ere berresten du hori, 2010, 2015 eta 2019. urteetako BEGen (Balio Erantsi Gordina) eta I+Gko (ikerketa eta garapena) inbertsioen bilakaerak agertzen dituzten barren grafikoetan ikus daitezkeenez.

Merkatuetatik datozen mezuetatik informazio partzial baten bidez saiatzeko da babesten anbizioa eta etorkizunerako ikuspegiak eza, baina norbere burua lasaitzeko literatura baten malabarismoek ezin dute egitate eztabaiaezin bat ezkatatu: gure produkzio-sistema lehiakortasuna galtzen ari da, batez ere, Europar Batasunaren esparruaren barruan.

Enpresariak ezer aldatu ez balitz bezala jokatzeko dute, jokaera aldatu behar duena merkaturak bera delako uste okerrean. Hots, lehengora itzuli behar dela uste dute, tradiziozkoa, historikoa eta, beraz, zaharrenean defendatzaile dena, euren ekintza azaltzeko eredutzat hartuta.

Immobilismoa, hortaz, aldaketari aurre egiteko jarrera ia militante bihurtu da horrela; beste herrialde batzuetako puntako enpresekiko lehia gero eta zailagoan agortzen ari den sistema babesteko. Kanpoko enpresa horiek berrikuntza dute, hain zuzen, Gipuzkoako merkaturak sartzeko lantza-punta.

Enpresa-proiektu garrantzitsurik ez egotea

Proiektu handiei ekiteko estimulurik gabe, Gipuzkoako enpresa-mundua postura indartsuetatik alde egiten du eta garai hobeen zain nola edo hala aurrera egiten saiatzeko da zailtasunen artean. Ez da oraindik ohartu garaia ez direla, ez onak, ez txarrak, konbentzitzen duten aitzindari batzuen lidergopean orientaturik, herritarrek hartzeko prest dauden konpromisoaren arabera onak edo txarrak.

2. Eszenategia: GIPUZKOA DESGOGARA.

Azken emaitza mundu mailako ingurunean posizioak galtzea da eta horren ondorioz bizi-kalitateak behera egiten du eta produkzio-sistema ez da kapaz lan-munduan sartu nahi luketen pertsona guztientzat enplegu-aukerak sortzen laguntzeko.

Europar Batasunean kide gehiago sartu da eta prozesu arrakastatsua izan da

Europar Batasunean egun 30 estatu daude (15+10 2004. urtean, Errumania eta Bulgaria 2009. urtean, Suitza, Islandia eta Norvegia 2014. urtean) eta kide berriak sartzeko prozesua arrakastatsua izan da. Horrek zerikusia izan du aipatu enpresa-jarrerarekin. Esperientziak erakutsi du sartu berri diren herrialdeak besteen mailara iristeko eta benetako lehiakideak izateko 10 urte behar direla. Errealitatearen irakurketa miopea badirudi ere, horixe da egiten ari dena.

Europar arkitektura berriak, funtsean estatuetan oinarritzen denak, mugaz gaindiko erregioen arteko lankidetzarako bideak ireki ditu. Dena dela, harreman horiek sendoak izateko garrantzitsuagoak dira dagokien herrialdeen tradizioa eta historia, ekonomia eta kultura-alorretan duten antza, europar bultzada bera baino. Ez dago erregioen ahalmenak eta eskumenak egituratu ditzan araudirik, baina erregioen arteko akordioak orokortzen ari dira.

“Gure gaitzen errudunak kanpoan daude”, gu eramaten uzten diegu

Gizartea gero eta zaharragoa da eta badirudi enpresa-munduko enpresamendurekin bat datorrela; hau da, egunkarietan gero eta espazio handiagoa duten bere problemak globalizazioaren ondoriozko fenomenoek leporatzen dizkie. Besteak beste, herritarren segurtasunik eza, kultura-aldaketa eta balioen bilakaera egotzen zaizkio globalizazioari, horrela nahi ez den egoera baten erantzukizuna kanpora bidaliz. Globalizazioaren ezaugarria da merkatua gizarteari nagusitzea eta horrek alternatibarik ez duelako ideia oso zabaldua dago.

Praktikoari begiratzea eta bizimoduak eta pentsamoldeak berdintzea nagusitu dira. Ez dago jendearengan ilusioa sor edo jendea mugiaraz dezan lidergo edo proposamen sinesgaririk.


Mugimendu feministaren gorakada

Besteei gu eramaten uzte horrek badu salbuespen bat: mugimendu feminista. Mugimendu hau oso errotuta dago joan zen mendearen amaierako urteetan jaio ziren eta orain lan-merkatuan sartzen ari diren emakumezkoengan. Lan-munduan aurrez aurre aurkitzen dira emakume gazte horien jarrerak eta enpresen jarrera kontserbadoreak. Irungo erakustazokan izan zen “Emakume proaktiboek” azken biltzarrean bildutako emakume profesionalak 3000tik gora izan ziren eta organizazioen jarreraren aldaketarako gune bat aldarrikatu zuten. Horien zeregin militanteak gizonen jarreretan eragiten du erantzukizunaren banaketari dagokionez berdintasun handiago baten alde egin dezan gizarte baterantz abiarazteko.

Tokikoaren protagonismoa

Politika ordezkartzaren eskema formalean oinarrituta dago, baina alderdiek gizartea aldatzeko gaitasunean atzera egin dute; eta hori, neurri handi batean, etorkizun proaktibo baterantz abiatzeko eta dugun errealitate erabat erreaktiboa behin betiko atzean uzteko akordio sakonetara heltzeko gai izan ez direlako.

Hauteskundeei begira dauden komunikabide-enpresekin gero eta antz handiagoa duten alderdi politikoen errealitatearen aurrean etsita, herritarrek utzi egiten diete alderdiei administratzen eta apatia eta abstentzioa gero eta handiagoak dira. Kezkarik nagusia ekonomia da eta, kasurik onenean, toki mailan parte-hartze handiagoa ahalbide dezaten erak bilatzen dituzte herritarrak.



2. Eszenategia: GIPUZKOA DESGOGARA.

Horretan udalek laguntzen dute, beharizanei hurbileko erantzuna ematen diete eta. 2004-2008 urteen arteko legealdiaren amaieran onartutako udalei buruzko lege berriak, 2010. urtetik aurrera aplikatu denak, udalei protagonismo gero eta handiagoa eman die. Azken toki-hauteskundeetan partaidetza handitu zen, Espainiar Parlamenturako 2016ko hauteskundeetan egon zen eta alderdietan ia kataklismo bat eragin zuen % 52 eskasarekiko.

Aldundia egoera berri horretara entusiasmorik gabe egokitu da eta kudeaketa deszentralizatza behartua izan da; horrela alde metropolitarrak indartu dira. Horren ondorioa erakundeen arteko adostasunaren bidetik gero eta garapen handiagoa lortzea izan da, herritarren zerbitzurako baliagarria izan dadin berrantolaketa sakonik egin gabe baina.

Zerbitzu publikoak "mehetzea" eta joera alternatiboak agertzea

Ekonomiak politikoarekiko gero eta nagusigo handiagoa izateak eragina izan du administrazio-kudeaketan eta ekimen pribatuaren esku uzten aritu izan da gero eta meheagoak eta gutxiago diren zerbitzu publikoak. Teknokraziak agintzen du. Herritarrak ez daude pozik egoera horrekin eta horren aurrean politikariek, gizarte-zerbitzuen sistemai eusteko behar besteko baliabideak sortzen ez dituelarik, ekonomia moteldu izanari leporatzen diote horren errua. Biztanleriaren zati bat egokituta eta egoera onean bizi da; bestek, ordea, zerbitzu-ekonomia batean enplegu ez-egonkor eta kalitate eskasekoak jasaten ditu.

Frustazioa eta etsipena nagusitu diren sentipenak izanda ere, gizarte zibilak erreakzionatzeko ahaleginak egiten ditu, indar sozialen arteko adostasunak bilatuz. Ildo horretatik, azaldu dira balio berrien, bizimodu berrien eta bestelako pentsamolde edo ekoizteko moduen alde egiten duten korrante eta joerak.

Zentzu horretan, gizarte-babeseko sistema publiko eta pribatuaren osagarri, boluntarioen mugimendua gero eta garrantzitsuagoa da eta honetan gazteak dira protagonistak.

Herritarrekiko harremanetarako tradiziozko bideek euren hartan segitzen dute eta alderdiak eta euren benetako ordezkari-tz-eginkizuna ahuldu dira. Horiek horrela, teknologia berriek informazioa lortzeko erraztasuna ekarri dute, batetik, baina, bestetik, dagoen informazioaren bolumenak eta konplexutasunak ulertzea zailtzen dute.

Euskal Herriaren konfigurazioa eta ETAREN neutralizazioa

Euskal Herriaren konfigurazio juridiko-politikoaren gaiak zabalik jarraitzen du, baina bigarren plano batean; hala ere, tentsioak hor daude. Egonkortasuna benetakoa baino gehiago azalekoa da eta ez zaio zor adostasun politikoari, herritarren frustazioari baizik. Izan ere, dagoeneko gogaituta dauden herritarrak, alderdien dialektikekin egiten duten antzera, gatazkatik paso egiten hasiak dira.

Eskakizun eta alderdi ekonomikoek, politikoek baino gehiago, eta Europaren elkarlanak ETAREN jarduerak baldintzatzeko zuen gaitasuna neutralizatu dute, baina honen eragin negatiboek jarraitzen dute. Jarduera bertan behera utzi edo amore eman nahi ez duen erakundeari eusteko kopuru nahikoan sartzen dira gazteak. Gizartean indarkeria-modu berriak azaltzen ari dira: indarkeria soziala, arrazari loturikoa eta herritarrena, gizarte zatikatu eta zahartu baten ezaugarri.

Gipuzkoa metropolia Lurraldearen antolaketarako lehenengo ereduaren porrota

Gipuzkoa metropoli handi bihurtzen ari delarik, biztanleria Zarauztik Hondarribirainoko itsasaldean pilatzen da eta Donostia horren erdigunea da.

2. Eszenategia: GIPUZKOA DESGOGARA.

Azken 15 urteetan izandako lurralde-antolaketarako politikak ez du lurralde osoaren ikuspegia izan. Barneko zirkulazioa eta Gipuzkoatik igarotzen ari dena batzen dituen bide-azpiegituretan egindako inbertsioei esker, bizilagunen mugikortasun hobea eta handiagoa lortu da. Horren ondorioz, Gipuzkoatik joandako bizilagun berriei esker hazi diren lurralde mugakideak gero eta erakargarriagoak dira gipuzkoarrentzat.

Mendearen amaieran diseinatutako planifikazio-figuretan jasotako proposamenak gauzatzea blokeatuta geratu da. Gauzatzeko ahaleginek topo egin dute Gipuzkoako ideia-marko bat ez egotearekin, plan partzialen batura baino gehiago izan dadin lurraldearen inguruko kontzeptu bat ez egotearekin alegia.

Lurraren okupazio-ereduan tradiziozko arauak

Orain, mendearen hirugarren hamarkadan murgilduta, lurralde-antolaketa gainbeheran dagoen eredu baten emaitza dela agerian dago, eredu hori ez baita gai izan bizilagunen eta ekonomi jardueraren geroagoko beharretara egokitutako mekanismoak egituratzeko. Urumeako lasterbidea, mende hasieran metropoliaren eta jarduera-guneen artean trafikoak banatzeko ingurabide moduan eraiki zena, bete-beterik dago eta trazadura berri bat planteatzen hasi da.

Ekonomi jardueretarako lurra okupatzeko eredu espazialak tradiziozko arauak jarraitzen die eta planifikaziorako esparrua horretan udalerrria da. Zirkunstantzia horietan udalaz gaindiko izaera eta eskalako ekipamenduetarako eta azpiegituretarako lur-erreserben planifikazioa eta kudeaketa oso motel eta zailtasun handiz egiten dira oraindik ere. Antolatua izateko udal lurra agortu den aldeetan soilik gauzatu dira proiektuak. Planifikazio-eskema, dena dela, bilakatu ez denez gero –udal mailako eskalaren ordeztarteko eskala bat jarri dute, besterik ez–, baditu oraindik ere eskala aldatzean saihestu nahi izandako disfuntzioetako batzuk.

Bereizketarik gabeko landa-lurraren okupazioa

Landa-lur edo nekazaritza-lur asko okupatzen ari dira etengabe, hiriguneen mugen ondoan badaude, ekonomi eragileek egoitza eta industria-jardueren zerikusia duten politika sektorialeki leku egiteko egiten duten presioagatik. Horren adibide argia da Miramoneko Teknologi Elkartegia osatzeko Zabalegi aldean inauguratutako enpresen jarduerarako gune berria. Lurra okupatzeko politika honen eraginez, poliki-poliki gure ekosistema erdi-naturalak galtzen edo murrizten ari dira eta natur paisaia eta landa eta nekazaritza-ingurua narriatzen ari dira.


Hezkuntza-sistemaren erreakzio txikia

Aldaketarik egin nahi ez duen eta gertaeren mendean dagoen panorama zaharkitu honetan, eredu berri bateranzko baliabiderik baliotsuena hezkuntza-sistema da, baina honetan dauden jarrerak eragile ekonomikoen jarrerekin bat datoz.

Heziketa-moten kopuruak pixkanaka-pixkanaka egokitzea

Eskolan jarduteko adinean daudenen kopurua urtez urte, denbora luzean, gero eta txikiagoa izan ondoren, egonkortu egin da oraingo kopuruan, jaiotza-tasak zertxobait gora egin duelako eta inmigrazioko gazteengatik.

Ikasleen kopuruak erlatiboki hobera jotzearekin batera, karrera bat edo beste egiten hasten diren ikasleen kopuruak ere gizartearen benetako beharretara egokitu dira nolabait. Lehengo desorekek doiketa ezak sortu dituzte. Lan-munduan lekurik aurkitzen ez duten unibertsitateetako graduatuak asko izanik, biztanleek erreakzionatu dute eta enplegu bat aurkitzeko berriz lehenetsi diote neurri txikiago edo handiagoan azaldutako bokazioaren aurretik.



2. Eszenategia: GIPUZKOA DESGOGARA.

Etengabeko Prestakuntzaren sistema egonkorra eta Lanbide Heziketaren protagonismoa

Lanbide Heziketak balantze hobea eskaintzen du. Etengabeko Prestakuntzaren sistema egonkorra eskaintza zabala eta anitza sortzen du. Heziketaren alderdi teknologikoetan eta metodologikoetan aurreratu izanik, jakin du barruko egiturak aldatzen eta malgutasunez erantzun ahal die produkzio-sistemaren premia aldarreari. Etengabeko Prestakuntza Lanbide Heziketa eraldatu duen motorea da eta barruko eskaerari erantzuten dioten ikastegi espezializatuak eta osagarriak sorrarazi ditu.

Aldaketa hori, batez ere, Lanbide Heziketaren sistema publikoan da garrantzitsua, pertsonalaren kontratazioari eta mugikortasunari zegokion sistema zurrun eta konplexua aldatzeko gai izan baita, kontratazio publikoak dituen beharrezko bermeen barruan sistemari malgutasuna ematen dion beste sistema bat bere eginda. Aldaketa honek indar politikoen eta sozialen arteko akordio bat erdiestea ekarri du, Goierri 2015.eko udazkenean sinatutako adierazpen batean gauzatu. Adierazpenak Gipuzkoa 2025: Prestakuntza eta Lehiakortasuna izena du.

Unibertsitatearen paralisia

Hezkuntzaren sektoreak protagonismoa berreskuratu duen panorama berri honetan "zulo beltz" handia Unibertsitatea da. Tradiziozko egiturari atxikirik, ez da gai erreakzionatzeko eta eskakizun berrietara egokitzeko. Unibertsitateko hezkuntzaren eta gizartearen premien arteko aldea gero eta handiagoa da eta, neurri handi batean, etengabeko prestakuntza da unibertsitateek dituzten prestakuntza-alorreko gabeziak eta hutsuneak betetzen dituen ikastaro espezializatuen bidez.

Hirueletasuna onartzea eta horren arrakasta

Informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzeak ahalbidetzen du ikasgelara joanda ematen den heziketarekin batera heziketa birtuala ere ematea, baita kanpoko informazio eta heziketa-iturri batzuetarako sarbidea izatea ere. Prozesu honek ingelesez jakiteko eskakizuna izan du eta hizkuntza hori pixkanaka-pixkanaka hezkuntza-sistema guztira sartu da modu orokorrean. Iaz Batxilergoan eta Lanbide Heziketan hirueletasuna –EGI proiektua, (euskara, gaztelera, ingelera) hezkuntza sistemak mende honetako lehen hamarkadan bere egina- ebaluatu zuen azterlan bat aurkeztu zen eta ikasleak hiru hizkuntzetan baliatzeko gai direla erakutsi zuen. Europar Parlamentuan Euskadiren lagunak diren erregioetako ikastegietan gure ikasleek ikasturteko hirugarren hiruhilabetekoa egiteko programa garatu izanak ahalbidetu du orain arte ezezaguna izan zen hizkuntza-gaitasun hori erdiestea.

Hezkuntza-kontzeptu berriak

Tradizioz ezaguerak besterentzeko egon den eginkizunari hezkuntza-alorreko beste kontzeptu batzuk gaineratu dizkiote ikastegi batzuetan; hala nola, trebetasunetan eta balioetan hezteak. Heziketa-prozesua horrela modu garrantzitsuan aldatu da eta benetako protagonismoa eman zaio ikasleari. Oinarrizko hiru hizkuntzak erabat barneraturik dituen ikasteko eta irakasteko prozesuan benetako tresna bihurtu dira informazio eta komunikazio-teknologiak eta horien erabilera izugarri handitu da. Ikastegi esperimental horiek balioa erantzen dute baina ez dute funtsean aldatzen sistema.

Hezkuntza-sistema aldatetara geldiro-geldiro eta apurka-apurka egokitzea beharizanen atzetik joan da eta ez du lortu herrialderik aurreratuenerako irakaskuntzaren kalitatearekiko aldeak handiagoak izatea ekiditea. Horrela bada, sistema ez da gai arlo horretan erronka handiei aurre egiteko.



3. Eszenategia: GIPUZKOA PARADOXIKOA.

Gipuzkoako ekonomiari buruzko 2019ko urteko txostenak biztanleko BPG Europar Batasunaren batez bestekoa baino % 10 handiagoa dela azpimarratzen duen egun berean, "Ogia Guztiontzat" elkarteak mantentze eta metatze-pobreziaren PGDI (Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta) adierazleak erakutsi zituen, bizilagunen % 15 pobrezia-arriskuan bizi dela salatzen.

Ezberdintasun handiak dituen Gipuzkoa globalizatua

Kontrasteak modu grafikoan laburtzen du Gipuzkoako egoeraren paradoxa. Administrazioa 2021etik 2025era gizartearen integrazioari laguntzeko plan bat abian jartzeko prest dagoela dirudi, gizarte-bazterketaren arriskuak sorrarazten duen kezka erantzuteko, hain zuzen.

2020. urteko Gipuzkoaren esparrua anibalentea da: nahiz eta batez ere ekonomian nabariagoa izan, azkenean gizarte-bizitzaren alor guztietan eragina izan duen globalizazioaren hazkunde moteldua baina etengabea dugu, batetik, eta, bestetik, azken urteetan zentzu bihozberago eta solidarioago batean zuzenketak sartzea lortu duten talde kritikoak ditugu, hauek ere globalizatuak.

Mundu mailako ekonomiak iraganean baino orekatsua den izaera irekia du. Nazioarte mailan euren lekua eskatzen zuten area erregional handiak sendotu dira, lehiakortasun-plus baten ekarpena eginda, eta, besteak beste, Europaren ekialdeko, Magrebeko, Asiako eta Latinoamerikako herritarrei bizitzeko beste aukera batzuk eman zaizkie horrela.

Ekonomia dinamiko eta lehiakorra

Gipuzkoak ingurune ireki horretan erantzun dinamiko eta lehiakorra eman du, Europako erregiorik aurreratuenen artean gizarte ekintzaile eta aktibo moduan agertzea ahalbidetu dioten zenbait berrikuntza direla bide. Erreakzio horren alderdi positiboekin batera, gizartearen oreka eta kohesioa gaitzesten dituzten balioak ere sartu dira eta kultura hori orokortuz doa.

Dagoen giro ekonomiko ona aprobetxatuz, gipuzkoar enpresa-ehunak aurrera egiten du eta erregioen espezializazioak eskaintzen dizkion espazio berrietara egokitzen jakin du: Horrela bada, industrien ehun historikoak pisua galdu du, maila teknologiko handiagoko jardueren mesedetan eta horrek balio erantsia handitzea eragin du.

3. Eszenategia: GIPUZKOA PARADOXIKOA.

I+G (Ikerketa eta Garapena) inbertsioa % 3tik gorakoa

2008. urtean Gipuzkoan gastuaren % 3 I+Grako zen eta horrela bi urtez aurreratu zen erreferentzia-norabidean. Orain, Nanotek izeneko Nanoteknologia Ikerkuntzarako Zentroan lanean ari diren 200etik gorako langileek, euren azken lanak argitaratuta, lanok nazioarte mailako ikertzaileen komunitatean izan duten harrera ona dela eta, laster Europako Ikerkuntza Sarirako hautagaiak izateko itxaropena dute. Oraingoz, Zentroa, Varsoviako Unibertsitatearekin batera, europar panoraman gaur egun indartsuenetakoa den Errusiako merkatuan sartzeko instalazio bat zabaltzearekin nahikoa du.

Informazio eta komunikazio-teknologia aurreratuaren erabilera orokortuak sarean egiteko lana zabaldu du eta horrekin mugikortasuna errazten duten eta tradiziozko enpresa-eredua zalantzan jartzen duten aldaketa handiak, lana antolatzeke orduan.

Joan zen mendetik mende honetara pasatzeko urteetan e-Gipuzkoa izeneko ekimenek izandako arrakasta egiaztatzea edonoren esku dago. Plana enpresa digital berriari oinarrituta dago eta enpresen kudeaketan modu arrakastatsuan aplikatu du "ontzi komunikatuen" eredu. 2015. urtea amaituta, European Round Management Foundation-ek ematen duen e-Europe saria jaso zuen.

Industriaren erabilerarako espazio nahikorik eskaintzen ez duen lurraldearen orografia bereziak eta ingurumen-alarreko exijentzia berriek eragin handia izan dute bilakaera horretan. Horrela bada, ekoizpen-jarduera batzuek lurralde historikotik alde egin dute beste kokaleku batzuk topatzeko.

Enpresa eta hezkuntza-eredu irekiagoak eta lankidetzaren aldekoak

Enpresa-munduan izandako mentalitate-aldaketa erabatekoa izan da lehenengo garaietako partzelazioaren eta indibidualismoaren estadioa gainditzeko. Enpresak fusioen bidez edo beste figura batzuen bidez batzeko ere oso garrantzitsua izan da aipatutako mentalitate-aldaketa.

Bai Gipuzkoako gizartea, orokorrean, bai enpresa-mundua, zehatzago, konturatu dira jakintzak garapenean duen funtsezko rolaz eta, horiek horrela, urtez urte handituz doaz etengabe prestakuntzarako baliabideak. Prestakuntza hori trebetasun profesionalerik harago doa eta jokoeretan, jarretan eta balioetan sakondu egiten du.

Prestakuntzaren protagonismoa produktzio-alarrean.

Prestakuntzatik, gogoetatik, irakurtzetik eta abarretatik datorren jakinduria beste guztiei ere helarazi beharra onartu egin da. Horiek horrela, enpresa guztiak antolatu dira barruan sortzen den ezaguera besteei ere helarazteko, sorlekutik ateratzeko eta, garrantzitsuagoa dena, aplikatzeko, egiten dena hobetze aldera emaitza praktikoa eman ditzan. Jakitea ez dela nahikoa eta nahi izatea ere beharrezkoa dela ohartuta eta bizitzan, oro har, eta baita lanean ere etika erkide bat izatea funtsezkoa dela konbentziturik dago jendea.

3. Eszenategia: GIPUZKOA PARADOXIKOA.

Hezkuntza-sistemaren bilakaera positiboa

Gipuzkoako hezkuntza-sistemak ere erreakzionatu du, lehiatzeko moduan erreakzionatu ere. Enpresa-mentalitate egokiaren garapenak ikastegien eta entitateen artean ezberdintasun handiak egotea ekarri du. Kanpoko ikastegiekin ere parte-hartzeak eta eskaintza libreak, batetik, eta, fusio eta bategite-prozesuak, bestetik, heziketaren arloko eskaintzaren dimentsioa aldatu dute.

Lehiak egituren aldaketa ekarri du eta hori nabaria da, batez ere, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean, kontratatze, antolatze eta kudeatzeko zituzten sistema zaharkituak errotik aldatu dituzte eta. Tradiziozko prozesu burokratikoak erabat baliogabea bilakaturik, gizartearen eskakizun aldakorretara egokitzeko eta programak aldatzeko beharrezko malgutasuna eta askatasuna dituzten unitate estrategiko asko sortu dira.

Gizartearen aldeko Unibertsitateen Kontseiluaren azken txostenean unibertsitateak elkarrengana hurbiltzeko eta elkarrekin lan egiteko plataforma horren lanari oso positibo iritzi diote.

Bizitza guztian egiteko prestakuntza esportagarria

Bizitza guztian trebatzeko izandako eraldaketa eta bategite prozesu hori "lanbide-bizitzaren kartilan" gauzatu da. Hori trebetasunak eta gaitasunak ebaluatzeko, egiaztatze eta kreditatzeko oinarritzko sistema da. Horrek guztiak tradizioz izan den lanbide-gaitasunerako eta ezaguerak hartzeko ereduaren ordez moduluen kontzepzioan oinarritutako beste eredu bat jartzea dakar. Eredu berria malgua da eta prestakuntza arautuaren, lanbiderako denaren eta etengabeko prestakuntzen arteko mugak eta ezberdintasunak ezabatu ditu.

Etengabeko ikasketaren kontzeptuak eta ikerketa-zentroen, unibertsitateen eta Lanbide Heziketaren arteko harremanek edozein adinetako eta baldintzako pertsonentzako prestakuntza-sistema aurreratu bat sortzea ahalbidetu dute. Prestakuntza-aukerak izugarri ugaitu dira horrela.

Hezkuntza-eskaintzaren egitura tekniko sendoak gure lurraldetik haragoko merkatua ireki du eta horretan Gipuzkoa lehiari ari da lidergoa eskuratzeko. Gipuzkoar ikastegien hiru ordezkariak abiatu dira aurrean atzerriera zerbitzuak eskaintzera: lehena Poloniara eta Europako ekialdeko herrietara joan da, bigarrena Amerikako Estatu Batuetako mendebaldeko kostaldera eta Mexikora, eta hirugarrena Txinara eta Asiako herrialdeetara.

3. Eszenategia: GIPUZKOA PARADOXIKOA.

Prestakuntzaren protagonismoa hain handia izanik, hirugarren sektore aurreratuaren azpisektore bihurtu da eta herriaren garapen teknikorako eta ekoizpen-sektoreen bilakaerarako giltza da egun.

BiziOsoanPrest Fundazioa bizitza guztian trebatzeko eta prestatzeko organo kudeatzailea da. Politika, ekonomia eta gizarte-alorretako estamentuen arteko akordio zabal-zabala behar izan da fundazioa sortzeko eta, behin eratuta, gizarteak onartutako lidergo erkidea sortu da, lehiatzeko orduan izandako arrakastaren giltza izan dena.

Hezkuntza hirueledunaren zabalkundea

Hizkuntza-ereduen tradiziozko banaketa gaindituta, zenbait urtetatik hona heziketa eleaniztunean jardun da eta pixkanaka prozesu horren bukaeran hizkuntza batean zein beste batean aritu daitezke ikasleak. Hizkuntza horien artean, ez dago esan beharrik, ingelesa dago.

Aurreko hamarkadan orokortu ziren ikasgela digitalei esker, mundu zabaleko teknologi zentroetako eta enpresetako profesionalak eskolak ematen jardun dira eta ikerkuntza-proiektuen berri ere eman dute.

Kide gehiago duen eta erregioak onartzen dituen Europa

2020. urte honetan Europar Batasunean kide gehiago sartzeko prozesua ia amaituta dago. Estatuaren Europa da oraindik ere; baina estatuaren hegemonia ahulduz doa, globalizazioa eta estatuak mugaturik ez dauden erregioen konfigurazioa direla bide. Erregio horiek –arrazoi historikoak, geografikoak eta ekonomikoak tartean kohesionaturik- apurka-apurka parte hartzeko bideak zabaltzen dizkien europar arautegi baten babesak dute.

Europar erregioek izandako bultzadak erraztu egin du orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoaren, eta zehatzago Gipuzkoaren, eta Iparraldearen eta Nafarroaren arteko harremanak eta elkarrekintzak ugariagoak izatea. Aldi berean, Donostialde handia garatzen ari da eta Baiona-Donostia eurohiria eratzen ari da, biak bat eginez.

Instituzio-esparru egonkorra eta irekiagoa

Europak Euskal Herria erregio moduan konfiguratzeko babesak eta Estatuaren etengabeko garapenak, gatazka politikoa ezeztatu egin dute eta horrek Estatuarekin, itun formalizaturik gabe bada ere, hobeto ulertzen eta herritartasun-identitatean oinarritutako proiektu bat garatzen lagundu du.

Helburu politikoak dituen indarkeria ez da zeharo desagertu, baina horren eragina oso txikia da. ETA “stand by” dago, ageriko gizarte-laguntzarik gabe. Dena dela, gizarte-desberdintasunei loturiko beste bortizkeria-mota batzuek garrantzi handiagoa dute eta segurtasun-eskaerak gero eta gehiago dira.



3. Eszenategia: GIPUZKOA PARADOXIKOA.

Instituzio-esparrua trantsizioan gauzatu zena bera da –Batzar Nagusiak, Aldundiak, Udalak– baina Eurohiriaren garapenak eta Donostialdea handiturik lurraldea orekatu beharrak eraman dute Aldundia, bai barrura, bai kanpora begira, estrategia erkideen edo partekatuen kudeaketa koordinatu bateranzko bilakaera izatera.

Zerbitzu publikoak pixkanaka-pixkanaka sektore pribatura pasatzea

Administrazioak gizartearen eskaerei zerbitzu arin eta azkarren sare batez erantzuten die, herritarrengandik hurbil dauden erantzukizun-zentroekin, hain zuzen; baina hauek orain tradizioz administrazio publikoaren partzelak izandakoak okupatzen dituen sektore pribatuak kudeatzen ditu.

Sektore pribatuak joan-etorriko informazioa eta erabakietan parte-hartzea errazten dituzten teknologia berrietan oinarritutako eta horretarako beren-beregi diren mekanismoak sortzen ditu. Politika horren bitartez, sektore publikoak bizitza ekonomikoa eta lan-harremanak erregulatzeko duen rola ez da orain arte izandakoa bezain garrantzitsua.

Zerga-alorreko foru-ahalmenari eutsi egin dio Gipuzkoak, baina Europarekin bat etorri beharrendaren baldintzapean; hau da, neurri handi batean zerga-tipo ezgarriak bateratuta. Udalen partaidetza diru-bilketan zein kudeaketan handiagoa da.

Demokraziak ordezkatzaila izateari eusten dio, hala ere, herritarren interesa txikiagoa denez gero, gizartearen axolagabetasunari aurre egiteko eta Europako erregioen konfigurazioaren erronkei erantzun ahal izateko herritarrei zabaltze-bidean dago.

Gizarte eragile eta mugimendu berrien agerpena

Erakundeen jarduera politikaren osagarri, eragile berriak sortu dira, baita parte hartzeko modu berriak ere, eta hauek aldarrikapen eta errebindikapen sektorialetarako bidea eskaintzen dute. Mugimendu horien adibide argia dugu *Ogia Guztiontzat* plataforma, Gipuzkoako familien % 15 bizi diren pobrezia-egoera salatu berri duena.

Elkartasunik eza eta gizarte ezberdintasunak

Politika ekonomikoa eta soziala merkatuen liberalizazioaren eta mugarik gabeko kapitalen mugimenduaren dogmetan oinarritzen dira. Gainontzeko gai guztiak printzipio horien menpean daude.

Europar sozialdemokrazia aurreratutako ezaugarri izan duen gizarte-ongizatearen eredutik aldentuz eta Amerikako Estatu Batuetako eredurantz hurbilduz joan da Gipuzkoa, garapen ekonomikoari emandako garrantziagatik. Hilaren bukaerara arte diru-sarrerak heltzen ez zaizkien familien kopurua urtez urte handitzen dela erakusten dute estatistikek.

3. Eszenategia: GIPUZKOA PARADOXIKOA.

Indibidualismoa eta lehia dira balio nagusiak

Indibidualismoa eta lehiakortasuna dira gizartean balio nagusiak. Merkatua politikaren eta gizartearen gainetik egoteak elkartasunik ezerako joera indartzen du. Ekonomiaren bilakaera positiboa izanik, batetik, eta gizarte-eredua elkartasunik gabekoa, bestetik, ezberdintasun handiak daude eta horrek tentsioak sortzen ditu. Moldatutako edo ondo bizi den gizarte-zatiak segurtasuna eskatzen du.

Ezberdintasunak sortzen dituen gizarte eta lan-arloko ereduak

Lan-arloan, lan-harremanetan malgutasun handiagoa dago. Horrek norbanakoei, banan-banan hartuta, dagozkien arauak indartzea eta, aldi berean, araupetze kolektiboak indarra galtzea ekarri du. Enplegu egonkorren (ongi ordainduak) eta behin-behineko enpleguen arteko bereizketa handiagoa egiteko joera zeharo finkatuta, egoeraren beraren elementu estruktural bihurtu da. Hala ere, tentsioak tentsio, gizartea itxaropentsu bizi da.

Emakumeen dinamismoa gizartean

Kontraesan ez beteriko eszenategi honetan, emakumezkoek gizarte-eredu bihozberago eta orekatsuegi baterantz orientatzen diren balioen ekarpena egin dute. Andrazkoak ordaindutako lanetan sartzea errealitatea da -emakumeen okupazio tasak Europar Batasuneko tasen antzekoak dira- eta enpresetan beste ikusmolde batzuk sartu dituzte, freskoagoak eta nabardura eta balio berriz beteak.

Gipuzkoar gizarteak, herritarrek nahiz administrazioak, egindako ahaleginek lagundu dute hori lortzen, bi sexuetakoei eskubideak eta betebeharrak partekatzen dituzten laneko eta familiako bizitzak batera eramatea ahalbidetu duten jarreraren aldaketak eta laguntzeko mekanismoak sortzen ahalegin handiak egin ditu eta. Horrela bada, zenbait urtetatik hona ari dira modu arrakatsuan lanean unitate LAGUNGARRIAK (gizarte-laguntzarako unitateak). Hauetan gizonezkoek eta emakumezkoek zonaka antolatzen dituzte urgazpen-zerbitzuak, lan, heziketa zein aisialdi-arloko ordutegiak eta ardurak bateragarriak izan daitezen bermatzeko.

Aldaketak gehien bat familian gertatu dira; izan ere, azken urteetan azaltzen eta normaltasuneko estatusa izan arte finkatzen joan diren bestelako elkarbizitza-unitateek, aldiz, egokitzeko problema gutxiago izan dituzte.

Eurohiria da Gipuzkoako erdigune berria. Bainona-Donostia eurohiria errealitate bihurtzeko egindako ahaleginek lurraldearen planifikazioa enfokatzeko modua aldatu dute.

Azpiegitura hobeketa eta higikortasun handiagoa

Ekonomiak agendan jarri du garraio-azpiegituren hobekuntza, batez ere, itsaso eta trenbide bidezko garraioaren azpiegiturena. Pasaiako portu berria bukatuta dago eta Nafarroarekin eta Zaragozarekin lotzen gaituen abiadura handiko trenbidea inauguratuta dago. Badira lau urte abiadura handiko euskal sarea martxan dagoela; Intercity moduan funtzionatzen du eta "topoa" luzatuta Baionaraino heltzen delarik, Eurohiriaren "metroa" dela esan daiteke.




3. Eszenategia: GIPUZKOA PARADOXIKOA.

Biztanle-kopuruen desorekak. Pilaketa Eurohirian

Mende hasieran irekitako komunikazio-bideak gorabehera, barruko mugikortasunari dagokionez, badira konpondu gabeko problema handiak, batez ere, biztanle-kopuru handiak pixkanaka-pixkanaka Donostialdean metatzen joan direlako. Gipuzkoa zeharkatzen ari den garraioari eta ekonomi jardueren beharrei erantzun bat eman behar zaio lehenbailehen.

Ekonomi jardueri planifikazioan emandako garrantziak desoreka gero eta handiagoa sortu dute Donostialde indartsuaren eta Debagoieneko poloaren artean. Gipuzkoako beste eskualde batzuk, Goierri, Urola eta Debabarrena, esate baterako, atzerantz doaz, bai demografiari, bai ekonomiari dagokienez. Goierri, modu berezian, Nafarroarantz bideratu du handitzeko eskaeraren zati bat.

Ekonomiaren hazkundeak sorrarazitako kontsumoaren kultura ingurumena babestearen aldeko mugimenduak ditu ondoan. Azken hauen aldarrikapenetan ingurumenarentzako babes handiagoa eta bizi-kalitatea hobetzea daude.



Eszenategia 4: GIPUZKOA BERRITZAILEA

“Gipuzkoa: Lidergoa eta Kohesioa” prozesua Europako Ordezkarien Ganberan aurkeztua izan berri da, azken hamar urteetan izandako erregioen proiekturik berritzaileenarentzako saria eman diezaioten.

Sariak Europar Batasunean 2012. urtean sortutako Erregio Bikainen Taldean sartzea dakar berekin. Joan zen mendetik mende honetara igarotzean “Europa jakintzan oinarriturik munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena izateko eta, ekonomikoki modu sostengarri eta orekatsuan haziz, enplegu gehiago eta hobeak eta gizarte-kohesio handiagoa izateko” markatutako helburu estrategikoa bete zela 2011. urtean iritzirik, sortu zen Erregio Bikainen Taldea eta sorreratik beretik Europar Batzordeak onartu beharreko helburu estrategiko berriak proposatzen ditu urtero.

Saria Gipuzkoa 2020 prozesuaren amaiera dela esan daiteke. Hori, globalizazio ekonomikorako prozesuarekin batera mende hasieran nagusitu zen elkartasunik gabeko eredu ankerraren ereduaren parez pare, garapen propiorako bestelako eredu baten bila hasteko pizgarria da.

Euren eskubideen eta betebeharren jakinaren gainean dauden herritarren protagonismoaren alde

Herritarren parte-hartzeak eta elkarrizketa ireki eta iraunkorrak funtsezko balioak erkideak, denenak, izatea eta horrela aldaketarako giro egokia sortzea ahalbideturik, orain, mendearen hirugarren hamarkada hastear dagoela, zalantzarik beteterik etorkizunari begira ilusioa piztu zuen postura baten emaitzak jasotzen hasiak gara.

Herritarrei emandako protagonismoak euren eskubideen eta betebeharren jakinaren gainean egotea ekarri zuen eta lidergoa eskuratzearen, balio irekien, sormenaren eta anbizioaren alde egindako postura, nagusi zen jarrera konformistari eragiteko pizgarria izan zen.

Elkarrizketa eta negoziazio iraunkorra, erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko tresna dituen gizarte eredia

Aldeko giro honetan, ekimen berritzaile eta proaktiboak garatu dira, gehien-gehienek onartutako lidergo eraldatzaileak sortzeko xedez batzeko gai izan den eta garapen orekatsua eta gizarte-kohesioa lortu nahi dituen gizarte baten ezaugarri diren balio bere-bereak finkatu dira, eta balio demokratikoak eta kultura parte-hartzailea erabat bere egiten dituen proiektu baten inguruan adostasuna lortu da. Elkarrizketa eta negoziazio iraunkorra gaien inguruan eztabaidatzeko, erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko halabeharrezko tresnak dira.

Pertsonen garapen integralaren alde egiteko, bizitza guztian izango den prestakuntzaren eredu berezia garatzen da eta berau aldaketaren motorea da

Emaitza berdintasunaren alde egiten duen gizarte-eredu orekatsua da. Eredu honen oinarriak bizitza pertsonala, soziala eta profesionala aurrera batera eraman ahal izatea, indar politiko eta sozialen arteko elkarrizketa eta elkarlana, eta elkartasunez aberastasuna denen artean banatzen duen politika fiskala dira.

Eszenategia 4: GIPUZKOA BERRITZAILEA.

Gipuzkoak, bere aurrerapenerako ardatza dela iritzirik, pertsonaren garapen integralaren alde egiten du eta generoen arabera rolak parekatzea bere egiten du. Ordaindutako lanetan gero eta emakume gehiago egonik, Gipuzkoako jarduerataza Europako erregiorik aurreratuenetako tasetara hurbildu da. Bilakaera zientifiko eta teknologikora egokiturik egonik, bizitza guztian trebatzeko sistemak enpresen eta gizarte-entitateen etengabeko berrantolaketa sustatzen du.

EUROSTATEk argitaratutako azken estatistikek -dagoeneko Europako batez bestekotik zenbait puntu gora azaltzen dituen errentari, okupazioari eta I+Gko inbertsioei buruzko adierazleekin- Gipuzkoa Europar Batasunean erregioen garapen endogenerako eredu azaltzen dute.

Hezkuntza-alorreko kontzeptu berri batek tradizioz ezaguerak besterentzeko izan duen eginkizunari trebetasunen, gaitasunen eta balioen garapena gaineratu dio. Irakaslea ikasleari laguntza eta orientazioak ematen saiatzen da eta prestatzeko eta ikasteko prozesuarekin identifikatzera daraman protagonismoa ematen dio ikasleari.

**Informazio eta komunikazio-
teknologiak hezkuntza-prozesuan
informaziorako eta komuni-
kazioarako tresnak dira eta eredu
aldatzea errazten dute**

Ondo prestatutako eta motibatutako pertsonaren protagonismo hori orokorrean organizazioetara ere heltzen da eta gizarte jakitun eta parte-hartzailea sustatzen du horrek.

Hezkuntzaren munduan izandako aldaketaren alde egin du informazio eta komunikazio-teknologia berrien aplikazioak; izan ere, mundu guztiarekin konexio-lotura indartsuak izatea, herrialderik aurreratuenetatik ikastea eta elkarlanean ikasteko harremanak izatea ahalbidetzen dute.

Gipuzkoan, lehen hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino, ikastegietako leku guztiak sarearekin konektatuta daude eta horietatik ikasleak sarri askotan sartzen dira, denborari dagokionez, zuzen-zuzenean eta modu interaktiboan heziketa birtualeko moduetara, hitzaldietara eta era guztietako ekitaldietara. Irakaskuntza oinarriko hiru hizkuntzetatik edozeinetan ematen da, gizarte oso zabaldua dagoen eskaera bati erantzunez. Hizkuntzen gaia normaltasunez bideratu da eta horrek eragin positiboa du gizarte-kohesioan.

**Unibertsitateak, zentro tekno-
logikoak eta enpresak elkarlanean
jarduten diren berrikuntza eta
ikerketarako guneak sustatzen
dira**

Unibertsitatearen, zentro teknologikoen eta enpresen arteko harremanei esker, ahaleginak bateratu dira; eta horrela benetako berrikuntzaguneak sortu dira eta bakoitza bere aldetik egiten ari izandako lanak izugarri indartu dira. Horren guztiaren ondorioz, garapena azkartu duen "palanka efektua" dei genezakeena eta hezkuntza-sisteman eta, orokorrean, gizarte guztian hedatu den ikerketarako eta berrikuntzetarako giro aproposa sortu dira.

Egun ez dago unibertsitateetako ikasgelak, ikerketa-laborategiak edo I+Gko enpresa-unitateak bereizterik. Proiektuak hiru eremu horietako edozeinetan diseinatu eta burutu daitezke. Hartutako erabakien berri Berrikuntza Sistemari ematen zaio.

Illo honetatik, unibertsitateek ahaleginak batu dituzte aurreko sistema aldatzeko eta Unibertsitateen Euskal Kontseilua sortzeko. Administrazio Publikoarekin elkarlanean aritzeko eta harremanetan egoteko lotura estuak daude egun eta hari orientabideak eta laguntza ematen dio Unibertsitateen Euskal Kontseiluak.



Eszenategia 4: GIPUZKOA BERRITZAILEA.

Gipuzkoa erdi-go mailan jarri da teknologiar dagokionez

Gizartearen, enpresaren, zentro teknologikoen eta unibertsitatearen arteko konexioak eta kohesioak orain arte ezezaguna izan den dinamika mugiarazlea eta irekia sortu dute. Enpresen garapenaren ardatza berrikuntza izateak Gipuzkoa munduko testuinguruan, teknologiar dagokionez, erdi-go mailako posizioetara eraman du.

Enpresen arteko elkarlana orokortu egiten da merkaturko eskaerei erantzun ahal izateko formula moduan. Kudeaketan aurreratuta dauden sozietateak garatzen dira

Gipuzkoa etxebizitza interaktiboa osatzen duten elementuen (etxeko elektratresnak, barruko zein kanpoko konexioa, iturri energetiko autonomoen sorrera eta aplikazioa...), ikerketan, bidaiariaren garraio kolektiboko ibilgailuen diseinuan eta nanoteknologia buru dugu. Ikerketan egiten den ahaleginen gutzirakoa BPGen % 4 da.

Ekoizpen-sektorean, globalizazioari aurre egiteko gailendu den estrategia enpresa-taldeak sortzea izan da. Enpresariak, lehiatzen behartuta dauden inguruneak norbere aldetik ezin erdiets dezakeen masa kritikoa eskatzen duela jakitun, aliantzak egin dituzte eta hauekin batera kudeaketa-modu berriak ere ezarri dira.

Enpresariak eta langileek enpresen ereduak berriztatzen dituzte, aurrez aurre egotearen ordez lankidetzaz jarriz, parte hartzeko mekanismoak sartuta. Bilakaera horrekin batera, kooperatibismoak gero eta pisu handiagoa du. Horrela, oinarrian dituen balioetan eta formulazioan berean ere, gure gizarteak bere-berea duen faktore lehiakor gehigarri baten ekarpena egiten duen ekonomi sistema berezia sortu da.

Egoera berri honen ezaugarria dugu kudeaketan organizazio aurreratuak kreditatzeko IKE (Integrated Kudeaketa Erakundea) izeneko sistema berria.

Arlo publikoko eta pribatuko enpresen arteko elkarlana dela bide, aldaketarako elementu lider eta kudeatzaile moduan, kudeaketako sistema integratu estrategiko bat ezartzen da

Batez ere enpresa-eredu horientatik, enpresa gizarte-kohesiorako elementu garrantzitsutzat jotzen du jendeak. Aberastasuna eta enplegua sortzeko duen rola onartzeak ondorio gehigarria du: ekimen berrientzako pizgarria da eta gazteei enpresa-proiektu berriak abian jartzeko adorea ematen die.

Hezkuntza eta ekoizpen-alarretan izandako eraldaketak ekintza komunitarioan ere ondorio paraleloak ditu. Azken honi aldaketaren alde egin dezan eta aldaketa orientatu dezan kudeaketa-sistema abian jartzeko eskatzen zaio, baita gizarte aurreratu honen maila eman dezan zuzendaritza estrategikoa zehazteko lidergoa onartzeko ere.

Eragile publikoen eta pribatuen integrazioa adierazten duen esparrua Aldundian 2015. urtean sinatutako Gipuzkoa 2050: Denok Bat protokoloa da. Honek datozen 25 urteetan berrikuntza-alarreko inbertsio estrategikoak egiteko 500 milioi eurotik gorako fondoa du.

Estatuen eta erregioen Europa bat, subiranotasun partekatua dituen

Europar garapen geldo eta kontraesanezkoak jarraitzen du. Estatuen inguruan antolatuta egon arren, estatuen mugen mende ez dauden eta interes edo tradizio erkideak dituzten erregio informalak ere hartzen ditu barnean.

Eszenategia 4: GIPUZKOA BERRITZAILEA.

Inguru honetan, euskal gizartea heldu da, itxaropenik eza uxatu du eta autogobernua eta mendekotasuna batzen dituen barruko akordio batera eraman du politika, subiranotasun partekatua dituen estatuen eta erregioen Europa batean.

Akordio politiko horien fruitu dira Autonomia Estatuaren garapen osoa eta bidean dagoen tankera federaleko itun politiko berria Estatuarekin negoziatzen jardutea.

Indarkeria gaindituta, abian da Estatuarekiko itun politiko berria...

Orain hamarkada bat, alderdien artean erabakitze elkarriketa baten testuinguruan, protagonistek bertan behera utzita, indarkeria politikoa gainditu ondoren, abikimendu libreko herritartasunean oinarritutako proiektu bat lehen urratsak ematen hasia da. Oraindik ezegonkorra da proiektua, nonbaiteko partaide izateko sentimendu eta identitate-faktore ezberdinen elkarbizitzan oinarritu beharra duelarik, mesfidantza asko gainditu behar dituelako.

Instituzio-esparrua eskumen berriekin garatuta, sarean erakundeen arteko lankidetzaz izateko eta egoera berriaren eskakizunei erantzun ahal izateko harremanen asimetria duen koadro bat zabaldu da.

Aldaketarik handiena 2011. urtean izan zen, Aldundiko Departamentuak dagozkien eskumenak kudeatzeko Prozesu Unitate bihurtu zirenean. Lehiakortasun, Mugikortasun, Elkartasun eta Bizi-kalitateko Unitateak sortu ziren orduan.

Demokrazia ordezkatzaileraren bilakaera parte-hartze handiagoko ikuspegi baterantz...

Demokrazia ordezkatzaileraren parte-hartzaileago bihurtu da. Iritzia sortzeko alderdien gaitasun dialektikoan oinarritutako komunikazio-joko politikotik gizartean dauden iritziak eta interesak ikusgai egin eta ordezkatu nahi dituen beste joko baterantz abiatu dira alderdiak.

Eragile berriak sortu dira eta alderdien ondoan parte hartzeko modu berriak eta presio-taldeak daude egun.

Herritarra, bere eskubideen eta betebeharren jakinaren gainean egonda, kontrol handiagoa du...

Herritarrek, euren eskubideen eta betebeharren jakinaren gainean egonda, arlo publikoarekiko interes handiagoa dute. Komunikabideen manipulazioaz gogaituta, euren informazio propioa bilatu eta sortu egiten dute. Teknologia berrien laguntzaz, euren ordezkariak kontrolatu egiten dituzte. Orain, hautesleek zuzenean aukeratzeko dituzten Batzar Nagusietako kideak, alderdien zerrendarik gabe, eta horrek batzarkideak herritarrengandik hurbilago egotea errazten du.

Gizarte-trukearen logika berri bat sortu da eta Administrazioak ezin ditu begiak itxi horren aurrean. Organizazio piramidalen eta hierarkikoen garaia amaituta, lankidetzan oinarritutako prozesuen sare-egitura da zerbitzuen deskontzentrazioa, erabakiak hartzeko gardentasuna eta eraginkortasuna, eta politiken ebaluazioa errazten dituena.

Botere publikoek gizarte-babesa eta oinarritzko eskubideak bermatzen dituzte. Norbanakoen eskubideetan aurrera egiten da eta, aldi berean, arlo publikoaren eta pribatuaren elkarlanean oinarrituta, zerbitzu publikoen kontzeptuari eusten zaio (administrazioak erraztu egiten du).



Eszenategia 4: GIPUZKOA BERRITZAILEA.

Gipuzkoa administrazio birtualeko proiektu batean buru

2006.etik 2014.era, e-Europe programaren barruan, Gipuzkoak administrazio birtualaren proiektu pilotua garatu zuen. Horrek bultzada izugarria eman zion gatazkak konpontzeko elkarrizketan eta partaidetzan oinarritutako kulturari, batez ere, gazteen artean. Gizartea estutzen eta geldiarazten zuen euskal gatazka konpontzeko irudimenezko formulak bilatzeko etengabeko ahaleginak eta Gipuzkoa herrialde txikia izatea erabakigarriak izan ziren Europar Batzordeak aipatutako proiektua garatzeko eremu moduan aukera zezan.

Justizia sozialeko eredu bat hitzartuta, bizitza profesionala, pertsonala eta soziala batera eraman daitezke.

Etorkinak eguneroko errealitatearen zati dira. Ezberdintasunak onartzeko politikek arrakasta dute eta justizia sozialaren arloan jende gehiago barnean hartzen duen eredu hitzartu da. Elkartasun-fondo batek finantzatzen du neurri batean eredu hori.

Emakumezkoen enplegu-tasa gizonetzkoenaren parean dago. Horrek suposatzen duen autonomia ekonomikoa da gizonen eta emakumeen arteko harreman berrien katalizatzailea. Horiek horrela, etxeko arduren eta lanen banaketa berrantolatu egin da, rola trukatu egiten dira eta gizarte-zerbitzu berriak sortu dira.

Jaiotza-tasa, 2018. urteari dagozkion azken datu ofizialen arabera, emakumeko 1,8 seme izatera heldu da; hots, Europako batez bestekoaren parean dago egun, azken 5 urteotan pixkanaka-pixkanaka baina etengabe gorantz joan da eta.

Belaunaldi berekoen arteko eta ezberdinetakoen arteko elkar-tasunean oinarrituta, bizitzan zehar bizi-kalitateari eta mailari eusteko politika publikoak abian jartzen dira

Mentalitate berria Eustatek denboraren banaketari buruz argitaratutako estatistiketan islatzen da. "Gizarte Baldintzak. 2012-2015" azterlanaren arabera, gizonetzkoek etxeko lanetan ematen duten denbora ia emakumeek ematen dutenaren bestekoa da. Emakumeek, bestalde, gero eta denbora gehiago ematen dute prestakuntzan. Legeek, beste alde batetik, familiaren eta elkarbizitza-unitate berrien eskubideak berdinak izateko bidetik jo dute.

Genero-bortizkeria, XXI. mendearen hasieran gero eta kezka handiagoa zena, gutxitu da baina ez da zeharo desagertu. Zoriturrez, enpresen barruan genero-indarkeriaren kasu batzuk azaltzen hasi dira.

Biztanleria gero eta zaharragoa izateak gizartean dituen ondorioei aurre egiteko gizarte eta osasun-arloan zerbitzu berriak sortu dira. Herritar guztien bizi-kalitateari eusteko politika publikoak aplikatu beharra oso onartuta dago eta konpromiso hori belaunaldi berekoen arteko eta belaunaldi ezberdinen arteko elkartasunean oinarritzen da.

Gizonen eta emakumeen enplegu-tasak berdinak izateak gizarte-bazterketaren arriskuak gutxitu dituela frogatu da. Emakumei dagokienez, ordaindutako lanaren ondoriozko gizarte-aurreikuspenen sistema eta autonomia ekonomikoa zenbat eta txikiagoak izan edo izan ezean, orduan eta handiagoak gizarte-bazterketaren arriskuak eta alderantziz.

Guztiek etxebizitza duin bat eskuratzea bermatu da.

Lurraren alorrean neurriak hartu dira higiezinaren merkatuak herritar guztiek, alokairuan zein erosita, etxebizitza izatea bermatuz.

Etxebizitza duinak eskuratzea, prestakuntza eta enplegua kontuan hartzen dituen inmigrazio-politikak etorkinak gure artean errota egoten lagundu du.

Eszenategia 4: GIPUZKOA BERRITZAILEA.

Gizarte-politikak elkartasunezko autorregulazio baten fruitua dira. Enplegu-politikak euskal esparrutik kudeatzen dira. Lan-harremanek ere erregulazio berezia dute, beti ere Europar Batasuneko erakundeek zehaztutako politika orokorrekin bat etorrita.

Europako inguruaren herrialdeekin lehiari dagoen gizarte aurreratu baten eskakizunei erantzun arrazionalak emateko ahaleginean, Gipuzkoa ikusmolde aurrerakoi eta abangoardista batetik lurraldearen berrantolaketa-eraketarako planteamendua egin du.

Gipuzkoako ideia-irudia izateko Gipuzkoa Hiria kontzeptua onartzen du jendeak

Plangintzaren ikusmolde berriak, prozesuen arabera esku-hartzearen eskala berrietara egokituak, hiriaren eskala espazio eta lurraldearen multzo globalizat jotako eskualde eta metropoli mailako eskalarekin artikulaturik, erabat egin du bere Gipuzkoa Hiriaren kontzeptua.

Lurraldearen administrazio kudeaketa, prozesuen kudeaketa-arloka burutzen da eta hori aldaketa handia izan da

Eginkizun horretan lagundu du administrazio-kudeaketa eraldatu izanak. Ohiko departamentuak prozesuen kudeaketa-unitateek ordezkatu dituzte. Unitate hauek azken 10-12 urtetan geometria aldakorreko departamentuen arteko eta erakundeen arteko adostasun-politikak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak orekatuak esperimendu izanaren ondorioa dira.

Lurralde guztian garraio publikoaren sare borobila artikulatu izana, bailaren arteko komunikabide berriak egin izana eta atsedenerako hirien inguruko espazioak egokitu izana lagungarria izan da Gipuzkoa hiri bakarra dela ohartarazteko. Izan ere, mutur batetik bestera joateko 40 minutu inguru besterik ez da behar.

Maldetan hiria egiteko prozesuari ekin zaio, lurraldearen baldintza fisikoetara egokituz

Lehenago ibarren barreneko lur lauak poliki-poliki okupaturik eta beterik, maldetako lurrak ere apurka-apurka urbanizatu eta okupatu dira. Hiriez gaindiko ikusmolde batetik ekin zaio maldetako lurretan hiria eraikitze prozesu honi, maldetako lurren okupazio erasokorrean erori gabe, lurraldearen gorabeheretara egokitutako hiriaren irudi berri bat sortzeko ahaleginak eginez.

Hiriez gaindiko areak sortzea ahalbidetzen ari da eta horrela erdigune berriak sortzen ari dira

Politika sektorialeiei eman zaien orientazio berriari eta hiri eta lurralde-eskala ezberdinetara egokitutako plangintza-tresnei esker, Gipuzkoako espazioaren eta lurraldearen egitura globalean sustraituko erdigune berriak sortu dira. Horrela bada, lurraldearen erdigune bakartzat Donostialdea zuen ereduaren alternatiba gisa, unitate hauek aipa daitezke: Beasain-Lazkao-Ordizia, Goierri Hiria osatzen duena; Azpeitia-Azkoitia, Urola Hiria osatzen duena, eta Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza, Debagoiena osatzen duena.

Azpiegiturak lurraldea egituratzeko ikuspuntutik planteatzen dira

Alde batetik nekazaritza eta basogintzarako lurretan oreka berriak bilatzean herri txikien artikulazioari arreta berezia eskaintzen bazaio, azpiegitura berrien (errepideak, trenbideak, portuak eta aireportuak) planeamendua, proiektuak eta kudeaketak Gipuzkoa Euskal Hiriaren erdiko pieza moduan egituratzea dute xede. Horrela erakusten du, hain zuzen ere, Pasaiako eta Bilboko portuen kudeaketa-unitateak.

Garraio publikoa, beharrezko azpiegiturekin eta ekipamenduekin, Gipuzkoa jakin baten "urbanizazioan" giltza da. Gipuzkoa horretan ingurumenari arreta berezia eskaintzeaz gain, sostengarritasuna eta bizi-kalitatea lurralde-politiken zeharkako elementutzat jotzen dira. Errepide eta trenbide bidezko garraioen baturarako txartel bakarrak erabiltzearen emaitzak oso positiboak izan dira.



